

atxagaren beldurrak



barrenkale 6. ikastunitatea
3. maila
irakaslearena

400 pta.

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Kudeaketa:	Joanba Bergara (HABEko Prestakuntza arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak:	Joxe Manuel Goenaga (Santurtziko Udal Euskaltegia)
Errealizazio didaktikoa:	Esther Isasa (HABEko teknikaria)

© HABE 1999. ISBN 84-86968-83-6

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkie Santurtziko Udal Euskaltegi eta Udalari materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Halaber esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua eta maketazioa: Tita Lorenz eta Marisa Mantxola • Marrazkiak: Marisa Mantxola

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Atxaga, B. 1996 Antonio de Murgiak esan zuena, In Dilijentzia-Bidea abentura zenean: Zumalakarregi Museoa.

Atxaga, B. Lau aldiz elur In Euskaldunon Egunkaria. 98.08.02

Atxaga, B. 1988 Bagdadeko morroia In Obabakoak. Erein, 213-214. or.

Lindanoa ezabatzeko planta bukatzeaz dago In Euskaldunon Egunkaria. 99.02.06

Alzheimerren gaitza dutenen zaintzaileak profesionalizatu beharra nabarmendu dute. In Euskaldunon Egunkaria. 99.02.06

Euskaldunon Egunkaria 1995 Estilo liburua, 55-57. orr.

Eguzki-lore saioa: Heriotza, gaur . ETB

Euskaltzaindia (LEF Batzordea) 1992 Hitz elkartuen osaera eta idazkera In Hitz-elkarketa-4 81-82.orr.

atxagaren beldurrak

barrenkale 6. ikastunitatea
3. maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

irakaslearena

Hitzaurrea

Mende berriaren atarian, helduen euskalduntzearen berrikuntzaren aldeko erronkaren aurrean, HABEk kurrikulu-proiektua jarri du abian eta bere garapenerako hainbat pausu ematen saiatu da euskaltegiekin lankidetzan.

Berrikuntza kurrikularrak aldaketa sakona eskatzen du, hizkuntzaren ikas/irakas prozesuen bai helburu, eduki eta metodologiaren oinarriko balore eta printzipioetan, bai ebaluazio sisteman.

Badakigu eguneroko jardunari eragiten dioten aldaketek, egonezinak, zalantzak sortzen dituela. Urte askotako jardunak –eta ez jardun okerrak, bai baitakigu urte hauetan egindako ibilbidea eta esfortzua euskalduntze-alfabetatze arloan ez dela makala izan– errotu dituzte irakasleengan uste eta jardun didaktiko jakin batzuk.

Kurrikulu berrikuntzak dakarren aldaketa sustatzeko ez da, beraz, aski teoria berriak hotz-hotzean zabaltzea. Beharrezkoa izango da irakasleei, ahalik eta era zabalenean, jardura didaktiko berriak azaltzea, eta gelako benetako praktikara hurbiltzea. Beharrezkoa baita ere, hizkuntza ikas/irakaskuntzaren oinarri eta printzipioetatik eguneroko jardunerako jauzia errazteko zubia eskaintzea.

Eta horixe izan nahi dute HABEk aurkezten dituen ikasmaterial hauek; teoria eta praktikaren arteko zubia, kurrikuluaren mezua gauzatzeko aukera zehatza eta mezu horretara iristeko bitartekoa.

Material hauek diseinatzerakoan kurrikuluak bideratzen dituen eredu metodologikoen artean aukera bat egin da. Ez da, noski, aukera posible bakarra, baina bai, asmoz behintzat, eredu edo bidelagun, irakasleek beraiek euren materiala antolatu ahal izateko bidea erakutsi nahi dutenak.

HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikuluari (HEOK) dagozkion hiru mailatarako ikastunitateak burutu ditu.

Eskura duzun unitatea Barrenkale sailekoa duzu. Barrenkale 3. mailarako ikastunitatek osatzen dute. Maila hau EGA-mailara dago bideratua, baina EGA-mailak azterketako ariketa jakin batzuen mekanika baino zerbait gehiago eskatzen du, hain zuzen, ahozko eta idatzizko testu egituratu eta josien ulermen eta adierazpen gaitasuna.

Ikastunitate hauek ez dute ikasprozesu osoari dagokion ibilbidea betetzen, uste baitugu irakasleak aplikatzaile huts eta zurrun ez, baina erabiltzaile zuhur, zentzudun eta printzipiodun izanik, zentzu kritikoz, jakingo dutela beren materialak antolatzen, eguneroko errealitateari eta beharrei erantzunez.

Jokin Azkue Arrastoa
HABEko Zuzendari Nagusia



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | |
|---|---|
| 1. Irakaslearentzako oharrak | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 8 |
| 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 9 |

2. Atazak

A Multzoa

- | | |
|--|----|
| 1. Ataza: Nire bizitzako unerik larriena | 10 |
|--|----|

B Multzoa

- | | |
|----------------------------|----|
| 2. Ataza: Beldur modernoak | 13 |
| 3. Ataza: Heriotza, gaur | 19 |

C Multzoa

- | | |
|------------------------|----|
| 4. Ataza: Amesgaiztoak | 26 |
|------------------------|----|

3. Eranskinak

- | | |
|--------------------|----|
| 1. Bideo-pasarteak | 29 |
|--------------------|----|

4. Material osagarriak

- | | |
|---|----|
| 1. Diktaketak (txotx-diktaketa eta cloze-testa) | 36 |
| 2. Dastatu literatura: Dilijentzia | 41 |

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Eskuetan duzun ikastunitatean beldur-kontuak izango ditugu hizpide: beldurraren izaera, beldur-motak, norberaren beldurrak, heriotzari diogun beldurra, beldurra eta literatura, etab. Ikastunitateko ataza guztietan Bernardo Atxaga izango dugu bide-erakusle, batzuetan hark idatzitako testuak tartekatu ditugulako adibide edo eredu-gisa, eta beste batzuetan haren adierazpen batzuk baliatu ditugulako gogoetarako abiapuntu eta akuilutarako.

AMULTZOA

Nire bizitzako unerik larriena atazan, ikasle bakoitzak bere bizitzako une edo gertakari larri bat kontatu beharko du idatziz.

Atazaren abiaburuan beldurraren bi definizio ezberdin erkatuko dituzte ikasleek, Bernardo Atxagari jasotakoa eta Elhuyar hiztegiak dakarrena. Ondoren, beldurraren definizioari eta izariari dagozkion kontuetatik norberaren beldurretara egingo dugu jauzi: ikasle bakoitzak katalogo txiki batean bilduko ditu berarentzat bereziki beldurgarriak diren zera txiki horietarik aipagarrienak. Katalogoko beldurren azalpena eta komentarioa aberastearren, bestalde, APP motako sekuentzia didaktikoa tartekatu dugu (item berriak aurkeztu, modu kontrolatuan praktikatu eta modu askeagoan praktikatu), beldurrari buruzko esapide eta lokuzio arruntenak ikasi eta erabili ditzaten.

Atariko lan horiek bukatu ostean, Mariano Goikolearen Nire bizitzako unerik larriena testua aurkeztuko diegu ikasleei, gero eurek sortu beharko duten testuaren eredu-gisa. Ereduaren aurkezpenetik norberaren testuaren sorkuntzara pasatu aurretik, bi diktaketa-mota proposatzen dira, aukeran, material osagarriaren ereduazko testu horretan forma aldetik baliagarri izan daitezkeen hainbat konturi erreparatzeko (denborazkoak, etab.).

BMULTZOA

Beldur modernoak izeneko atazan, berriz, gizartearen bilakaerak sortzen dizkigun kezka eta beldurrak ekarriko ditugu hizpidera.

Hasteko, beldur-mota horren arrastoan jartzeko, Bernardo Atxagaren gogoetak entzun eta aztertuko dituzte ikasleek. Gero, egun arrunt batean prentsan argitaratutako bi albiste “beldurgarriren” gainean bi irakurlek egindako ahozko komentario laburrak aztertuko dituzte (bidenabar, bi ariketa gramatikal ere tartekatu dira bi testu horietan aipagarri diren zenbait kontu linguistikori erreparatzeko). Bide beretik, ikasle bakoitzak eguneko prentsan beldurgarriena iruditu zaion albistea aukeratu eta ereduazko bi horien antzeko ahozko komentarioa egingo du taldekideen aurrean. Ikaskideen komentarioak baloratu eta feedbacka emateko, bestalde, albisteen tituluak aztertzeo aukera emango digun jolas txiki bat ere proposatzen dugu.

Heriotza, gaur atazaren protagonista heriotza izango da, beldur guztien sorburu eta paradigmazat jotzen den misterioz betetako trantze hori. Gordinkeria eta bizipen pertsonalak alde batera utzita, alde kulturaletik helduko diogu gaiari: heriotza ulertzeo moduak, heriotzaren presentzia herri-atsotitzetan, hileta-errituen esanahia eta bilakaera, etab.

Hasteko, Bernardo Atxagaren Bagdadeko morroia izeneko ipuinarentzako izenburu aproposak bilatu beharko dituzte ikasleek heriotzari buruzko euskal atsotitzen artean. Horrenbestez, atsotitzek biltzen duten herri-ikuskeraren zenbait printz agerian geratuko dira.

Ondoren, Heriotza, atzo bideo-erreportajearekin atzera begira jarriko ditugu ikasleak, iragan hurbileko hileta-errituak zertan ziren aztertzeo. Bideo-erreportaje horren ulerkuntza ziurtatzeko atariko bi ariketa egingo dituzte, bata, lexikoa aztertzeo, eta bestea, aurrezagutza plazaratu eta aurreikuspenak egiteko. Bideo-erreportajearen transkripzioak aukera emango digu, bestalde, ohituren kontaketa erabili ohi diren aditz-tipoei erreparatzeko.

Azkenik, azken urteetan heriotza ulertzeko moduan gertatu diren berrikuntza eta aldaketak zein izan diren aztertu eta horien gainean duten iritzia azaldu eta eztabaidatuko dute ikasleek. Inortxo ere gera ez dadin zer esan ez dakiela, argazki batzuk aurkeztuko dizkiegu, oin-testu eta guzti, gaiaren adar aipagarrien erakusgarri.

CMULTZOA

Amesgaiztoak duzu ikastunitatearen azken ataza. Nire bizitzako unerik larriena atazan bezala, hemen ere testu narratibo bat idatzi beharko dute ikasleek, baina oraingoan Amesgaizto bat kontatuz.

Amaierako eginkizun horri aurre egin ahal izateko, hainbat laguntza aurkituko ditu ikasleak atazan zehar. Hasteko, Amesgaizto itxura duen laburmetraia bat ikusiko dute ikasleek; hobeto esanda, ikasle bakoitzak istorioaren heren bat ikusiko du eta beste bi herenak ikusi dituzten bi ikaskiderek elkarlanean saiatu beharko du istorioaren hariak lotzen eta ulertzen. Jarraian, Bernardo Atxagaren narrazio labur bat irakurriko dute. Narrazio horrek ere, aurreko laburmetraiak bezalaxe, Amesgaizto baten tankera du. Bi dokumentuek, laburmetraiak eta narrazioak, Amesgaiztoen ezaugarriak aztertze aukera emango digute eta horrek gero idatzi beharreko Amesgaiztoaren zer-nolako zertzen lagunduko die ikasleei.

Amesgaiztoaren idazketari ekin aurretik, Atxagaren testuaren oinarrian dagoen elementu fobikoari buruzko hipotesiak egingo dituzte ikasleek. Hipotesiak hipotesi, Atxagak berak argituko digu elementu fobiko hori zein den, nondik datorkion, etab. Elementu fobikoari erreparatze horrek badu bere funtsa; izan ere, norberaren fobietatik abiatzea izan bailiteke Amesgaiztoa sortzen hasteko modu eraginkorra.

Ikastunitatea osatzeko, azkenik, irakurketa literarioari eskainitako saila aurkituko duzue: Dastatu literatura. Oraingo honetan Bernardo Atxagaren ipuin labur bat proposatzen dizuegu: Dilijentzia.

Ipuinaren lanketarako prozeduran hiru atal nagusi aurkituko dituzue: lehenengoan, Bernardo Atxagak literatur pasarte beldurgarri baten ezinbesteko osagaiak zein diren azalduko digu. Bigarrenean, ikasleek ipuina irakurri eta ezinbesteko osagai horiek agertzen diren ala ez aztertuko dute, ipuinaren beldurgarritasuna zenbaterainokoa den eztabaidatuz. Hirugarrenean, azkenik, zera izango dute aztergai, estilo zuzenean aurkeztutako elkarrizketa batean narratzailearen iruzkinak nolakoak izaten diren eta nola tartekatzen diren.

! Oharra: Ikastunitatean zehar egindako lanaren ebaluazioa amaierarako utzi beharrean, egokiago iruditzen zaigu atazaka egitea, ariketak oroimenean fresko dauden bitartean.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

Hona hemen ikasleek ibili beharreko bidea.

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (9.or.)

O S A G A R R I A K

DASTATU LITERATURA: DILIJENTZIA

- Berbaldi bat entzun interesatzen diren datuak jasotzeko (entzute xehea)
- Ipuina modu estentsiboan irakurri
- Ipuinaren beldurgarritasuna aztertu eta eztabaidatu
- Estilo zuzenean aurkeztutako elkarrizketetan narratzailearen iruzkinak nola tartekatzen diren ikasi (41. or. irak. lib.) (30. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK/MINTZ/GRAM/IDAZ

IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(29. or. ik. lib.)

A Multzoa

1. ATAZA: NIRE BIZITZAKO UNERIK LARRIENA

- Bideo-pasarte batetik interesatzen zaigun informazioa jaso (entzuketara xehea)
- Kontzeptu berberaren bi definizio-mota erkatu eta ondorioak ateratu
- Nork bere beldurrak identifikatu
 - “Beldur” hitzaren inguruko zenbait esapide eta lokuzio ikasi eta praktikatu
 - Ereduzko testua aztertu eta antzeko beste bat sortu
 - Sortutako testuak baloratu, esanahiaren eta estiloaren aldetik (10. or. irak. lib.) (8. or. ik. lib.)

ENTZ/MINTZ/IRAK/IDAZ/GRAM

O S A G A R R I A K

DIKTAKETAK: TXOTX-DIKTAKETA, CLOZE-TESTA

- Testu barneko eduki gramatikalarri erreparatu
- Nork bere ezagutza gramatikala aktibatu testua berridazteko
- Norberaren zalantza gramatikalak identifikatu eta argitu (36. or. irak. lib.)

GRAM

C Multzoa

4. ATAZA: AMESGAIZTOAK

- Laburmetraia baten atalak elkarri kontatu eta istorioa lotu eta ulertu
- Laburmetraia istorioaren zenbait ezaugarri aztertu eta eztabaidatu
- Narrazio labur bat modu estentsiboan irakurri eta laburmetraiarekin alderatu
- Bideo-pasarte labur bat modu estentsiboan entzun
- Nork bere amesgaiztoa kontatu idatziz
- Sortutako testuen balorazioa egiten (26. or. irak. lib.) (25. or. ik. lib.)

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ

B Multzoa

2. ATAZA: BELDUR MODERNOAK

- Ahozko azalpen bat ulertu eta laburbildu
- Egunkariako bi albiste modu estentsiboan irakurri
- Ahozko komentario bateko informazioa eta ideiak irizpide batzuen arabera sailkatu
- Eguneko prentsaren gainirakurketa egin, albiste beldurgarri bat aukeratzeko
 - Aukeratutako albistearen gaineko ahozko komentarioa prestatu eta egin
 - Prentsako titularren ezaugarriak aztertu eta ikasleek egindako titular batzuk baloratu (13. or. irak. lib.) (12. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK/MINTZ/GRAM/IDAZ

3. ATAZA: HERIOTZA, GAUR

- Ipuin labur bat modu estentsiboan irakurri
- Heriotzari buruzko hainbat euskarazko atsotitz aurkeztu eta ulertu
 - “Hil” hitzaren mapa lexikala aztertu
- Bideo-erreportajea ikus-entzun eta hileta-errituei buruzko informazioa ateratu
- Ohituen kontakizunean erabili ohi diren aditz-tipoei erreparatu
- Nork bere iritzia azaldu heriotzak gizarte modernoan duen esanahiari buruz (19. or. irak. lib.) (17. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ/ENTZ/GRAM

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HIZTEGIA

- Beldurraren inguruko esapideak ikastea eta praktikatzea (1)
- Testu baten baliabide lexikalei erreparatzea (2)
- “Hil” hitzaren inguruko mapa lexikala aztertzea eta ondorio batzuk ateratzea (3)
- Hileta-errituen gaineko hiztegi espezifikoa ulertzea (3)

MINTZAGAIAK

- Norberaren beldur txiki-handiak eta bizitzako gertakari beldurgarriak (1)
- Gizartearen bilakaerari lotutako beldur modernoak (2)
- Heriotzaren esanahia lehen eta orain (atsotitzak, hileta-errituak, ohiturak) (3)
- Amesgaiztoak. (4)
- Beldurgarritasuna literaturan (2. osagarrian).

ELKARRERAGINA

- Bideo-pasartearen ulerkuntzan izandako zailtasun eta zalantzak argitzea elkarri lagunduz (1, 2, 3, 4)
- Ikaskideek sortutako testuak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) aztertu eta baloratzea (1, 2, 3, 4)
- Nork bere iritzia azaldu eta ikaskideekin eztabaidatzea (3)
- Istorio-zati baten kontaketa prestatzea taldekideekin elkarlanean (4)
- Taldetxotan bilduta, istorio baten hiru zati ezberdin azaldu eta egokiro josten saiatzea (4)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Bideo-pasarte batetik interesatzen zaigun informazioa jasotzea (entzuketara xehea) (1, 2, 4)
- Kontzeptu beraren bi definizio erkatu eta ondorioak ateratzea (1)
- Ereduzko testua aztertu eta antzeko beste bat sortzea (1, 2, 4)
- Egunkariako bi albiste modu estentsiboan irakurtzea (2)
- Ahozko komentario bateko informazioa irizpide batzuen arabera sailkatzea (2)
- Aukeratutako albiste baten gaineko ahozko komentarioa prestatu eta egitea (2)
- Ipuin bat modu estentsiboan irakurtzea (3, 4)
- Ikusi beharreko ikus-entzunezko dokumentu baten gaineko aurreikuspenak egitea eta aurrezagutza plazaratzea (3)
- Ikusi beharreko ikus-entzunezko dokumentu baten edukiari buruzko hipotesiak egitea (4)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- “Beldur” hitzaren inguruko zenbait esapide eta lokuzio ikastea eta praktikatzea (1)
- Narrazio baten barneko denborazko loturak aztertzea (1)
- Orainaldiko nahiz lehenaldiko ohiturak adierazterakoan erabiltzen diren aditz-tipoak aztertzea (3)

EUSKALKULTURA/GIZARTEA

- Egungo euskal gizartean nagusi diren beldurrak plazaratzea (2)
- Heriotzari buruzko euskal atsotitzak aztertzea (3)
- Iragan hurbileko hileta-errituak zein ziren aztertzea (3)
- Gaur egungo gizartean heriotza nola ulertzen dugun eztabaidatzea (3)
- Euskal literaturako hainbat pasarte irakurtzea (3, 4)



1. ATAZA: NIRE BIZITZAKO UNERIK LARRIENA 200'

Helburu nagusia:

- Ikasle bakoitzak bere bizitzako unerik larriena kontatuko du idatziz.

Helburuak:

- Bideo-pasarte batetik interesatzen zaigun informazioa jasotzea. (Entzuketa xehea)
- Kontzeptu berberaren bi definizio-mota erkatu eta ondorioak ateratzea.
- Nork bere beldurrak identifikatzea.
- “Beldur” hitzaren inguruko zenbait esapide eta lokuzio ikastea eta praktikatzea.
- Ereduzko testua aztertu eta antzeko beste bat sortzea.
- Sortutako testuak baloratzea, esanahiaren eta estiloaren aldetik.

Zertan den:

- Ikastunitatearen lehenengo ataza honek hiru atal nagusi biltzen ditu bere baitan:

Lehenengoan, gaiari buruzko lehen hurbilketa egingo da eta bertan beldurraren definizioaz eta izariaz arduratuko gara: Bernardo Atxagak elkarrizketaren * lehen atalean ematen duen definizioa jaso eta Elhuyar hiztegiak dakarrenarekin erkatuko dute ikasleek.

Bigarrenean, ikasle bakoitzak bere-bereak dituen beldurren katalogo txikia osatuko du, eta berorien berri eman beldurrari buruzko zenbait esapide ikasi berri praktikatzeko saiatuz. APP (aurkezpena, praktika kontrolatua, praktika askea) motako sekuentzia didaktikoa aurkituko duzue, beraz, atal honetan.

Hirugarren atalean, berriz, ikasle bakoitzak bere bizitzako unerik larriena kontatuko du, idatziz. Lagungarri gisa, eredu zko testu bat aurkezten zaie, eta baita, irakasleak egoki eta beharrezko iritziz gero, formari erreparazteko bi diktaketa-mota ere, aukeran, material osagarrian.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: gaia eta eginkizuna aurkeztu

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko atazaren sarrerako testu laburra. Komenta itzazue denon artean eta labur-labur honako galderok:

1. Zergatik da hain zaila beldurra zer den esatea?
2. Sarreran esaten duen bezain unibertsala al da beldurra? Ba ote da inor munduan beldurra zer den ez dakienik? Zergatik?
3. Zergatik dira pertsona batzuk beste batzuk baino beldurriago?
4. “Beldurraren katibu bizi” eta “beldurrari ezin ihes egin”. Ondo adierazten al dute bi ideiek beldurrak sortzen duen barne-sentipena? Zergatik? (5')

- Azal izeaiezu ikasleei jarraian ikusiko duten **1. bideo-pasartea** elkarrizketa luze baten lehen atala baino ez dela eta ikastunitatearen ondorengo atazetan tartekatuta direla elkarrizketa horren beste atalak. Beldurra ardatz duen ikastunitate honetan Bernardo Atxaga izango dugula, beraz, bide-lagun eta bide-erakusle. (2')

Ataza: lehen atala ikus-entzun eta Atxagaren definizioa jaso

- Elkarrizketaren lehen atala **1. bideo-pasartean** ikus-entzun. Ikasleak Atxagaren definizioa ulertu eta gogoan hartzen saiatuko dira. Arreta handiz entzun beharko dute, beraz. (3')
- Ikasle bakoitzak bere erantzuna idatziko du bideo-pasartetik jaso duen informazioan oinarrituta. (2')

* Bernardo Atxagarekin beldurraren gainean egindako elkarrizketa monografiko batetik ateratako lehen atala da. Beste atalak ondorengo atazetan erabiliko dira.

Atazaostea: bi definizio erkatu

- Binaka bilduta, ikasleek beldurraren bi definizio ezberdin erkatu beharko dituzte, Elhuyar hiztegian datorrena eta Bernardo Atxagak emandakoa. Erkaketa hori bideratzeko galdera batzuk aurkituko dituzte euren liburuan. (5')

Feedbacka

- Talde osoan, irakaslea gidari dela, komenta itzazue bi definizioen erkaketan sortu diren kontu aipagarri guztiak. Bidenabar, argitu Atxagaren azalpenean ilun geratu diren ideiak. (5-10')

2

Atazaurrea: girotu

- Irakur dezatela adi-adi sarrerako testu laburra. Bukatutakoan, komenta itzazue denon artean honako puntuok: (5')
 1. Normalean hain geureak eta bereziak izaten al dira bakoitzaren beldurrak?, ala badira beldur-mota unibertsalagoak?
 2. Zer-nolako eragina duela uste duzue heziketak beldurren sorreran?
 3. Egia al da pertsona baten beldurrak zein diren jakiteak informazio asko ematen digula pertsona horri buruz?

Ataza: nork bere katalogoa osatu

- Apur batean pentsatu ondoren, ikasle bakoitzak bere katalogoa osatuko du. Erantzunak idatziz emango dituzte ahalik eta laburren, azalpenak eta ñabardurak alde batera utzita. (5')

Gramatika eta diskurtsoa: beldurraren inguruko esapideen aurkezpena

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko Beldurraren inguruko esapideak izeneko taulan bildu ditugunak. Esapideotan “beldur” hitzaren inguruan erabiltzen diren aditzak eta zenbait lokuzio ezagun aurkezten zaizkie. Azter ditzatela banan-banan adibidezko esaldiak, esanahiari eta osaera morfosintaktikoari erreparatuz. Azpimarra ditzatela ondo ulertzen ez dituztenak. (5')
- Galdeiezu ea zein zalantza dituzten esapide horien esanahiaz, erabileraz eta osaera morfosintaktikoaz eta saia zaitzete denon artean argitzen. (10')

Gramatika eta diskurtsoa: esapideen praktika kontrolatua

- Esaiezu ikasleei idazteko esaldi bana katalogoan bilduta dauzkaten zortzi elementu horiekin. Esaldi horietan, aurreko puntuan aztertu dituzten lokuzio eta egitura morfosintaktiko berriak erabiltzen saiatu behar dute. Beraz, esaldiekin adieraziko dutenari baino gehiago adierazteko moduari erreparatu behar diote, ikasi berriak dituzten egitura eta lokuzio berriak modu kontrolatuan praktikatzeari. (10')
- Truka ditzatela zortzi esaldiak ondoko ikaskidearekin eta azter dezatela ea ikaskideak egindako esaldiak zuzenak eta ondo eratuak diren. Zalantzaren bat sortuz gero, apunta dezatela irakasleari galdetzeko. (5')
- Saia zaitzete ikasleei sortu zaizkien zalantza eta galderei erantzuten. (5-10')

Gramatika eta diskurtsoa: praktika askea

- Hirunaka bilduta, euren katalogoetan bildu dituzten beldur horien berri emango diote elkarri. Aukera polita ikasi berriak dituzten formak modu libreagoan praktikatzeko. Aurreko puntuan ez bezala, oraingoan arreta esanahian ipiniko dute, eta ez hainbeste adierazpidearen zuzentasunean.
- Azalpenak gidatzeko, galdetegi labur bat proposatzen zaie ikasleei euren liburuan. Esan beharrik ez dago beste puntu batzuk ere jorra litezkeela katalogoko beldurren azalpenean. (10-15')



3

Atazaurrea: ereduako testua irakurri

- Egin ezazu atazaren aurkezpena ikasleen liburuko sarrera-testutxoaren laguntzarekin: nor bere bizitzako unerik beldurgarri edo larrienaren berri eman beharko du idatziz, ereduako testuan Mariano Goikoleak egiten duen bezalaxe. (2')
- Irakur dezatela Mariano Goikolearen testua: Nire bizitzako unerik larriena (2')
- Amaitutakoan, komenta itzazue denon artean eta labur antzean ikaslearen liburuko bi galderak. (5')

AUKERAN: gramatika eta diskurtsoa: diktaketa



IRAK.LIB. 4.1.

Atazaren une honetan, egoki baderitzozu, material osagarrian (4.1.) dituzun bi diktaketa-ariketetako bat egin dezakezu.

Ataza: nor bere testua idatzi

- Lehenengo eta behin pentsa dezatela apur batean beraien bizitzako zein gertakari larri kontatu nahi duten. Lagungarri gerta daiteke katalogoan bildutako elementuak birpasatzea, beldur horien atzean, askotan eta askotan, norberak bizi izandako gertakari eta larrialdiak egoten baitira. (5')

! Oharra: Ez dezatela denbora gehiegi gal gertakari larriena zein izan ote den erabaki ezinik, ariketaren helburua betetzeko nahikoa baita edozein gertakari larri kontatzea, larriena ez izanda ere.

- Behin gertakaria aukeratutakoan, testua idazteari ekingo diote. Testua, tankeraz eta neurritz, Mariano Goikolearen ereduako hori bezalakoa izango da, gutxi gorabehera. (30')

Feedbacka: ikaskideen testuak irakurri eta baloratu

- Ikasle bakoitzak beste guztiek idatzitako testuak irakurri behar ditu. Testu horien guztien artetik bat aukeratu beharko du, bere iritziz gertakariaren larritasuna ondoen azaltzen duena. (20')

! Oharra: Testuen irakurketa antolatzeko, formula hauetako bat erabil dezakezu:

1. Testu guztiak ikasgelako hormetan eskegi sakabanatuta.
2. Ikasleak biribil itxi batean ipini, testuak eskuz esku pasa ditzaten.

- Hirunaka bilduta, egindako aukeraren berri emango diote ikasleek elkarri. Ikaslearen liburuko hiru galdera horien haritik egin beharko dute testuaren balorazioa. Eztabaida eta komenta ditzatela sortu diren iritzi eta balorazio ezberdinak. (5-10')

! Oharra: Galderetan argi ikusten denez, proposatzen dugun feedbackean garrantzi handiagoa ematen zaio esanahiari eta alderdi estilistikoari zuzentasun gramatikalari baino.

- Hirukote bakoitzeko bozeramaleak (agian, komeni da aldez aurretik izendatzea) taldean izandako eztabaida eta komentarioen laburpena egingo du talde osoaren aurrean. Irakasleari dagokio hizpidea eman lezaketen iritzi kontrajarriak eta desadostasunak identifikatu eta, hala nahi izanez gero, eztabaidarako aukera ematea. (15-25')

2. ATAZA: BELDUR MODERNOAK 180'

Helburu nagusia:

- Ikasle bakoitzak eguneko prentsako albiste beldurgarri bati buruz hitz egingo du.

Helburuak:

- Ahozko azalpen bat ulertu eta laburbiltzea.
- Egunkariako bi albiste modu estentsiboan irakurtzea.
- Ahozko komentario bateko informazioa eta ideiak irizpide batzuen arabera sailkatzea.
- Eguneko prentsaren gainirakurketa egitea albiste beldurgarri bat aukeratzeko.
- Aukeratutako albistearen ahozko komentarioa prestatu eta egitea.
- Prentsako tituluaren ezaugarriak aztertu eta euren egindako titulu batzuk baloratzea.

Zertan den:

- Ataza honek hiru mugarri ditu bere ibilbidean:

Lehenengoan, Bernardo Atxagarekin egindako elkarrizketaren bigarren atala ikus-entzungo dute ikasleek. Atal honetan, beldur modernoak, hots, gizartearen bilakaerari lotutako beldurrak izango ditu hizpide Bernardok. Ikasleek azalpenaren muina eta haria ulertu eta hiruzpalau lerrotan laburbildu beharko dute.

Bigarrenean, beldur modernoaren haritik tiraka, prentsan agertutako bi albisteren beldurgarritasunaz arituko gara: lehendabizi, albisteak irakurri eta muinean daramaten ezkutuko beldur hori bistaratu eta neurtzen saiatuko dira ikasleak. Ondoren, albiste horien gaineko bi komentario entzungo dituzte. Ikasleen eginkizuna, komentariogileak azaldutako ideiak sailkatzea izango da, ondo bereiztuz albistetik zuzenean jasotakoak, gaiari buruzko aurrezagutzatik aterak eta norberari buruzko datu biografikoak.

Hirugarrenean, azkenik, ikasleek antzeko ahozko komentarioak egingo dituzte eguneko prentsako albiste beldurgarrien baten gainean. Komentarioak talde txikitik egingo dituzte eta feedbackaren ardura ere euren esku utziko dugu. Feedback horrek, bestalde, aukera emango digu prentsako tituluak nolakoak izaten diren aztertzeko.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: beldur modernoak zer diren

- Etsaiezu ikasleei irakurtzeko hasierako sarrera-testua. Komenta itzazue denon artean ondorengo galderak:

1. Zein dira beldur modernoaren definizio horrek azpimarratzen dituen bizpahiru ezaugarriak?
2. Ados al zaudete definizio horretan esaten denarekin? Ezer aldatuko al zenukete definizio horretan?
3. Zein izan liteke beldur moderno tipiko bat? (5')

Ataza: bideo-pasarte ikus-entzun

- Ikasleek Atxagarekin egindako elkarrizketaren bigarren atala ikus-entzungo dute. **2. bideo-pasarte** horretan beldur moderno deitu ditugun zera horietaz mintzatuko da idazlea. Azalpena Atxagak berak aipatutako atsotitz batek laburbiltzen du ondo baino hobeto: **Gaurko euriak ekarriko ditu biharko lokatzak**. Ikasleek atsotitz horren esanahia kontestualizatzen eta ulertzen saiatu behar dute: Zer da Bernardo Atxagak atsotitz horrekin esan nahi izan diguna? (5')
- **2.bideo-pasarte**a ikus-entzun eta gero, bil daitezela binaka eta azal dezatela hiruzpalau lerrotan atsotitz horren esanahia. Lerro-kopuru mugatu horrekin aski izan beharko lukete, baldin eta azalpenaren haria eta muina ulertzeko gai izan badira. (10')

Feedbacka

- Elkar daitezela bi bikote eta truka ditzatela euren artean aurreko puntuan sortutako testu laburrak. Bikote bakoitza beste bikotearen testua baloratzen ahaleginduko da. Azter dezatela, besteak beste, ea beraiek sortutakoaren antzekoa den (zertan bai?, zertan ez?), azalpenaren muina ondo jasotzen duen, ulermen-arazorik gertatu den... (5')



- Berrito lehengo bikotearekin elkartu eta egindako azterketa-balorazioaren berri emango diote elkarri. (5')
- Bukatzeko, azal ditzatela talde osoaren aurrean ariketa egiterakoan izandako zalantza eta zailtasunak. Irakaslea gidari dela, argitu itzazue puntu korapilotsuak, baldin eta horrelakorik badago. (5')

2

Atazaurrea: albisteak irakurri eta galderei erantzun

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko modu estentsiboan Egunkariako bi albisteak: Lindanoa ezabatzeko planta bukatzeaz dago eta Alzheimerren gaitza dutenen zaintzaileak profesionalizatu beharra nabarmendu dute. Irakurri bitartean, errepara diezaiotela albisteen muinean dagoen beldurrari. (10-15')
- Albiste bakoitza irakurri eta gero, pentsa ditzatela hiru galdera horientzako erantzunak. Egokiago irizten badiozu, erantzunok idatziz prestatzeko ere eska zeniezaieke. (5')
- Komenta itzazue erantzunak denon artean eta labur-labur. (5')

Ataza: komentarioak entzun eta aztertu

- Ikaslearen liburuko sarrera-testuaz baliaturik, azal iezaezu ikasleei zein den atazan planteatzen den eginkizuna: Irakurri berriak dituzten bi testu horien gaineko komentario bana entzungo dute (**3. eta 4. bideo-pasarteak**), eta komentarioetan bildutako informazio eta ideiak sailkatzen saiatu behar dute. Egin dezatela kontu komentarioetan, albistetik zuzen-zuzenean jasotako informazioaz gain, komentariogilearen ekarpenentzat jo daitezkeen beste zenbait kontu ere agertuko direla, komentariogileak gaiari buruz duen aurrezagutza islatzen dutenak, batetik, eta komentariogileari berari buruzkoak, bestetik (arazoarekiko inplikazio-maila, datu pertsonalak eta biografikoak, etab). Ikasleei eskatzen zaiena da komentariogilearen ekarpen horiek identifikatu eta sailka ditzatela. (3')

! Oharra: Komentarioen sorburuan dauden albisteak ezagunak dituztenez, komentariogilearen ekarpenak arazo handirik gabe identifikatu beharko lituzkete.

- Ondoren aurkezten dizugun prozedura bi komentarioekin errepikatu behar da: (10')

- Ikasleek bideo-pasarteak ikus-entzungo dute. Informazioa jaso ahala, sailkatu eta euren liburuko taulara ekarri behar dute ohar laburren bidez. (2')
- Komentariogilearen azalpena bukatutakoan, bizpahiru minutu utziko dizkiegu taulan jaso dituzten oharrak txukundu ahal izateko. (2')

Feedbacka

- Hirunaka bilduta, tauletan jasotako oharrak alderatu eta komentatuko dituzte. (5')
- Irakaslearen gidaritzapean, talde osoan aztertu eta eztabaidatuko dira komentarioetako datuekin egindako bi sailkapenak. Argitu itzazu puntu ilun eta korapilotsu guztiak. (5-10')



ZUZENKETA-ORRIA

LEHENENGO KOMENTARIOA

Komentariogilearen aurrezagutza

- Lantegi berriaren kokagunea ezagutzen du.
- Lindanoaz dakien apurtxo: intsektizida dela, pozointsua...
- Badaki non eta nola pilatuta dagoen lindanoa.
- Badaki enpresa noiz itxi zuten.
- Lurrarekin nahastuta dagoen lindanoaz aipatzen duena.
- Inguru horretan gertatutako beste istripu larriei buruz dakiena.

Komentariogilearen gaineko informazioa

- Ezkerraldekoa da (Santurtziarra).
- Inguruko jendearen kezka ezagutzen ditu.
- Beraren auzo ondoan egin zituzten eraikinak aipatu ditu ("etxolak").

BIGARREN KOMENTARIOA

Komentariogilearen aurrezagutza

- Baiezatu egin du horrelako pertsonen laguntza handia behar dutela (materiala eta psikologikoa).

Komentariogilearen gaineko informazioa

- Albistean aipatzen den mahainguruan izan zen.
- Lankide baten amak gaisotasun hori dauka. Bera ez dago zuzenean inplikaturik.
- Lankide horren jokabidean aldaketa handiak sumatu ditu.
- Lankide horrek eskatuta joan zen mahaingurura.

Gramatika eta diskurtsoa

- Esaiezu ikasleei albiste beldurgarrien eredu-gisa aurkeztu ditugun bi albisteetara itzuli eta beraietan erabiltzen den hizkuntzari erreparatzeko pare bat ariketa xume egingo dituztela aurrera egin baino lehen. (2')

- Lehenengo testuari dagokion ariketak baliabide lexikalak ditu aztergai. Saia daitezela, jatorrizko testuari begiratu gabe, gaztelaniaz dauden kontzeptu horiek euskaraz jartzen. (3')

! Oharra: Kontzeptu horien guztien euskarazko ordainak irakurri berria duten testuan daude.

- Bigarren testuari dagokion ariketak morfosintaxia du aztergai: proportzioak, ehunekoak etab. nola adierazten diren euskaraz. Ikasleek testuaren ataltxo baten berritzulpena egingo dute: euskaratik gaztelaniara itzuli eta, gero, gaztelaniazko bertsiotik abiatuta, jatorrizkoa ezkutuan dela, berriro euskarara itzultzen saiatu, hitzez hitz, ezer aldatu gabe. (5')
- Bi ariketak bukatutakoan, bil daitezela binaka eta, jatorrizko testuak aurrean dituztela, aldera ditzatela euren erantzunak. Eztabaida eta komenta ditzatela zalantza puntu guztiak. (5')
- Guztion artean, komenta itzazue ariketa horietan sortu diren zalantza gramatikalak: lexikoaren eraketari buruzkoak nahiz egitura morfosintaktikoei buruzkoak. (5-10')



3

Atazaurrea: albiste beldurgarriena aukeratu eta komentarioa prestatu

- Eraman itzazu klasera azken egunetako Egunkariak. Bil itzazu ikasleak lau laguneko talde txikitan eta emaitza talde bakoitzari egun bateko Egunkaria (klasean zenbat laukote, hainbestexez egunetako egunkari eraman beharko dituzu, beraz). (5')

! **Oharra:** Taldeko ikasle-kopurua txikia bada launaka ipini beharrean ipin itzazu hirunaka.

- Ikasle bakoitzak egun horretako Egunkariako albisterik beldurgarriena aukeratuko du hamarren bat minutuko gainirakurketa arin baten bidez. Beldurgarritasunaren kontu hori nahikoa subjektiboa denez normala litzateke albiste ezberdinak aukeratzea taldeko lau partaideek, baina berdin dio laurek albiste berbera aukeratzeko badute ere. (10-15')
- Ikasle bakoitzak ahozko komentarioa egin behar du aukeratutako albiste horren gainean, neurritz eta tajukeraz aurreko azpiatazan entzun eta aztertu dituztenak bezalakoa, gutxi gorabehera. Komentario hori prestatzeko, irakur dezatela berriro albistea modu intentsiboagoan, eta pentsa dezatela zein ideia edo informazio interesatzen zaien euren komentarioarako. Horrez gain, pentsa dezatela, baita ere, ea zein beste informazio (gaiaren aurrezagutzari nahiz norberaren inplikazio-mailari dagozkionak) azalduko duten komentarioa jantzeko eta borobiltzeko. (5-10')

Ataza: komentarioak egin

- Egin itzazu talde berriak prestateta-fasean egunkari ezberdinekin, hau da, talde ezberdinetan, ibili diren ikasleekin. (2')
- Txandaka, taldekide guztiek beren komentarioak egingo dituzte. Entzule izatea egokitzen zaienean, honako bi eginkizun hauek beteko dituzte: (10')

1. Ikaskidearen komentarioa entzuten duten **bitartean** informazioa hiru multzotan sailkatuko dute (albistetik zuzenean ateratakoa izan daitekeena, norberaren aurrezagutzatik ateratakoa eta norberaren bizitzari lotutakoa). Multzo horietan sartzeko moduko informaziorik entzun dutela uste izanez gero, gurutze bat ipiniko dute taulan, dagokion atalean. Bistan denez, ereduazko komentarioekin egindako lan berbera da orain proposatzen zaiena, baina oraingoan abiapuntuko albisteak ez dituzte ezagutzen eta horrek zaildu egiten du albistetik zuzenean jasotako informazioa zein izan den jakitea (hipotesi mailan geratu behar, ezinbestean).
2. Ikaskidearen komentarioa **bukatutakoan**, taldekide bakoitzak komentarioaren sorburuan egon den albistearen titulua asmatzen saiatu behar du. Tituluok proposatzerakoan izan ditzatela kontuan titulu onaren urrezko lau ezaugarriak (ikus ikaslearen liburuan).

! **Oharra:** Esaiezu ikasleei komentariogileak ezingo duela inolaz ere berak aukeratutako albistearen titulua zein den esan, bestela feedbackaren atal bat galduko bailitzateke.

Feedbacka

- Komentarioak egiteko eratu ditugun talde berberetan egingo da feedbackaren lehen zatia. Taldekideek, komentarioetako informazioaren iturriak izeneko taula aurrean dutela, komentarioak gogoratu eta egindako sailkapenak komentatuko dituzte ikaslearen liburuko galderei erantzunez. (5-10')
- Feedbackaren bigarren zatian tituluekin egingo dugu jolas. Ikasle bakoitzak bere komentarioaren entzule izan diren ikaskideek proposatutako tituluak bilduko ditu jatorrizkoarekin batera (tituluaren taula). (2')
- Proposatu dizkioten titulu horietako bat aukeratuko du ikasle bakoitzak, bere iritziz jatorrizkoarekin alderatzeko edota tituluen egokitasunari buruzko azalpena egiteko aukerarik hoberena eman lezakeena. Egokitasunaren kontu hori zertzeko gogorarazi, berriro ere, zein diren titulu onaren ezaugarriak.

! **Oharra:** Gutxi gorabehera, Telecinco katean Caiga quien caiga saioan, Curso de ética periodística atalean egiten dutenaren antzeko zerbait egitea proposatzen dugu. (3')

- Behin alderatu beharreko tituluak aukeratuta eta komentarioaren nondik norakoak erabakita, ikasleek, banan-banan, talde osoaren aurrean azalduko dituzte komentariook. Alderatu eta komentatu behar diren tituluak gardenki bidez proiektatzeak asko lagun lezake ariketa arintzen eta ikasleen arreta biltzen. Komentarioak laburrak izango dira, minutu batekoak edo minutu t'erdikoak. (20-30')

! Oharra: Ikasleen komentarioetan irakasleak hizpidea eman lezaketen kontuak ikusten baditu, bai tituluaren esanahiari dagozkionak, bai tituluak idazteko moduari dagozkionak, komenta ditzala labur-labur. Zeregin horretan lagungarri izango zaizulakoan Egunkariaren Estilo-liburuak tituluaren idazteko moduz esaten duena aldatu dugu hona (55-57. orr.):

Tituluak

Tituluek osotasun sintaktikoa behar dute. Aditza jartzera jotzen da beti. Ahalik eta kasu gutxienetan egiten da elipsia.

Kutsu militarra Uztailaren 14ak (txarra)
Kutsu militarra izan zuen Uztailaren 14ak (hobea)
Kutsu militarrez ospatu zen Uztailaren 14^a (hobea)

Aditza jartzekotan, osorik idazten da, laguntzaile eta guzti.

Entzuketak gaitzesteko eskatu UPNk (debekatua)
Entzuketak gaitzesteko eskatu du UPNk (ongi)

Aditz laguntzailea orainaldian idaztea da egokiena. Bezperako gertaeretan gertatu da jartzen da tituluaren (posible denean). Testuan zehazten da noiz gertatu zen.

Bezperan gertatutako albisteak, atzo gertatu zirela esan beharrik ez dago gehienetan. Are gehiago, atzo ez da erabili behar tituluetan, benetan adierazgarria ez bada behintzat.

Euskaltzaindiak jardunaldiak aurkeztu zituen atzo (titulurako txarra)
Euskaltzaindiak jardunaldiak aurkeztu ditu (hobea)

Eguneko jazoerak gaur gertatu direla espreski adieraztea komeni da.

Puntuazio zeinurik gabeko tituluak da onena. Puntua ez da inoiz jartzen. Koma zein puntu eta koma ez dira, salbuespenak salbu, erabiltzen. Harridura (¡) eta galdera (¿) zeinurik ere ez da inoiz erabiltzen albiste arruntetan, hitz testualak ez badira behintzat. Parentesirik ere ez da erabiltzen, oso kasu berezietan salbu. Albisteetatik kanpo, malguago jokatzen da.

Ez da komeni tituluak zifrekin hastea. Zenbakiak, titulu hasieran behintzat, letraz idazten dira. Hasieran ez denean ere komeni da letraz idaztea. Hamaika zenbakia salbuespena da, beti zifraz ematen baitugu (11). Urteak, agertzekotan, zifrekin ematen dira.

Era berean, italikorik ez da onartzen tituluetan. Italikozko hitza ezinbestekoa denean, biribilez idazten da, komatxo bakunen artean.

Bi puntuak eta komatxo bikoitza (“ ”) nartzen dira, tituluaren inoren esana denean. Bi puntuak tituluaren kokatzeko ere balio dute. Adibidez:

Paue: istiluak izan dira epaiketaren hasieran

Kasu hauetan, adierazpenetan ez bezala, bi puntuaren ondoren letra xehez idatzi behar da.

Tituluaren izen propioari jarritako gero, izen-abizenak osorik edo abizena bakarrik erabiltzen da, laburdurarik gabe.

Jose Angel Cuerda Madrilera joango da (ongi)
Cuerda Madrilera joango da (ongi)
J. A. Cuerda Madrilera joango da (gaizki)



Tituluetan ez da inoiz hitzik mozten. Ahal dela hobe da aditz perifrastikoak eta sintagmak ere ez moztea. Irabazi dute, bi lapur... lerro berean jarri beharko lirateke. Honelakoetan, hala ere, lehentasuna du tituluaren bi lerroen luzera berdintzeak.

Juntagailu bat lerro bukaeran geratzen bada, hobe da beheko lerroa pasatzea.

Tituluan eta tituluaren ondokoetan (aurretituluan eta azpituluan) ezin da inoiz, inolaz ere, hitz bera erabili. Ez da komeni tartekietan ere errepikatzerik. Eta, ahal bada, orrialde bereko tituluetan ere ez da hitzik errepikatuko.

Tituluan ezin da egiaztat eskaini gero esames eta uste edo zurrumurru gisa azaltzen dena. Era berean, ezin da tituluan albistetzat eman gero azaltzen ez den zerbait.

Gehiegikeriarik gabe, interesgarria da zenbait titulu gure literatura edo zinemagintzako izenburuez baliatuz egitea. Irakurleari oroimen kulturala sortzen zaio pixkanaka:

Mikelen bigarren heriotza, Ehun metro beltz, Harrizko berri hau.

Abarkarik gabeko Peru...

Honek erreportaje, iritzi eta kroniketarako balio du batez ere.

Tituluak neurtu egiten dira. Albistearen garrantziak markatzen du diagramazioa, eta ondorioz, tituluaren zabalera, lerro-kopurua eta letra-tipoaren neurria. Hitzak eta karaktereak neurri horietara moldatzen dira.

3. ATAZA: "HERITZA, GAUR" 280'

Helburu nagusia:

- Ikasle bakoitzak bere iritzia azalduko du heriotzak gaur egungo gizartean duen esanahiari buruz.

Helburuak:

- Ipuin labur bat modu estentsiboan irakurtzea.
- Heriotzari buruzko hainbat euskal atsotitz aurkeztu eta ulertzea.
- "Hil" hitzaren mapa lexikala aztertzea.
- Bideo-erreportajea ikus-entzun eta hileta-errituei buruzko informazioa ateratzea.
- Ohituren kontakizunean erabili ohi diren aditz-tipoei erreparatzea.
- Nork bere iritzia azaltzea heriotzak gizarte modernoan duen esanahiari buruz.

Zertan den:

- Heriotza, beldur ororen sorburuan omen dagoen misteriozko zera hori, izango da hirugarren ataza honen mintzagaia. Gaia ikuspegi kulturaletik jorratuko da, pertsonalegiak edo gordinegiak gerta litezkeen beste bideak saihestuz.

Lehenengo azpiatazan, heriotzari buruzko euskal atsotitzak eta Bernardo Atxagaren ipuin labur bat jarri ditugu parez pare. Ipuinari egoki datozkion izenburuak aukeratu beharko dituzte ikasleek zerrendako atsotitzen artean. Atsotitzen esanahiaren azterketak heriotzaren esanahi kulturalaren arrastoan jarriko ditu ikasleak oharkabeen.

Bigarren azpiatazan, aintzinako hileta-errituei buruzko bideo-erreportajea ikusiko dute ikasleek. Ulermen-ariketaren sekuentzia didaktikoa aberasteko, entzute aurreko bi ariketa proposatzen dira, lexikoa aztertzeke, bata, eta aurreikuspenak egiteko eta aurrezagutza plazaratzeko, bestea. Ulermen-ariketaren amaieran, bestalde, bideo-erreportajearen transkripzioa erabiliko da aditzaren erabilerari erreparatzeko.

Hirugarren azpiatazan, aintzinako hileta-erritu horiek izan duten bilakaera izango da aztergai. Bilakaera horren nondik norakoak zehazteko, hamabost argazkitan jaso ditugu heriotza ulertzeke moduan izan diren berrikuntzak. Ikasleek berrikuntza horiei buruzko iritzia eman beharko dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: gaiaren aurkezpena

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko euren liburuko sarrera-testua. Hor egiten diren zenbait baieztapeni erreparatuko diogu, ikasleei euren aurrezagutza plazaratzeko aukera emanez. Honako galdera hauek izan litezke elizitate horretarako abiapuntu: (5-10')

1. Heriotza beste modu batera, hots, guk ez bezala ulertzen duen beste kultura edo erlijioaren baten aditzerik baduzue? Zein da kultura hori? Nola ulertzen du heriotza kultura horrek? Zein arrazoi egon litezke ikuskera horren atzean?
2. Txikitan kontaktzen zizkizuten ipuinetan heriotzak ba al zuen presentziarik? Zeinetan? Zein ziren heriotzaren ezaugarriak?
3. Ezagutzen duzue zeuen ama-hizkuntzan heriotzari buruzko atsotitzik? Zein?

Ataza: ipuina irakurri eta izenburuak aukeratu

- Ikasleek Bernardo Atxagaren Obabakoak liburuko "Bagdadeko morroia" ipuina irakurriko dute modu estentsiboan. (5')
- Irakurtzen bukatutakoan, binaka elkartu eta heriotzari buruzko hamabost euskarazko atsotitzak aztertuko dituzte banan-banan. Erabaki dezatela atsotitz horietako zein diren aproposak irakurri berria duten ipuinaren izenburu izateko. (10')

! Oharra: Eginkizuna arrakastaz burutzeko, ipuina ondo ulertu dutela ziurtatu beharko dute, lehenengo eta behin, eta gero, atsotitz bakoitza aztertu eta ulertu.

Feedbacka

- Bil itzazu arbelean ikasleek izenburu egokitzat jo dituzten atsotitz guztiak. (5')



- Behin zerrenda arbelean duzuela, birpasa itzazue denon artean hamabost atsotitzak. Ikasleek atsotitzak aukeratzeko edo baztertzeko izan dituzten arrazoiak azalduko dituzte. Atsotitzen bat ez badute behar bezala ulertu, emaitzietan beste argibide. (10')

Atazaostea: heriotzaren ikuspegia atsotitzetan

- Ikasleek hamabost atsotitzak birpasatu ondoren, gurutze batez markatuko dituzte euren ustez heriotza gauza ilun eta beldurgarri moduan azaltzen dutenak. (3')
- Guztion artean, komenta itzazue zein izan diren aukeraturako atsotitzak, eta zergatik. (5-10')

2

Atazaurrea: atazaren aurkezpena

- Ikasleen liburuko sarrera-testuaz baliaturik, azal ezazu zein den bigarren puntu honetan jorratuko den gaia: iragan hurbileko hileta-errituak Euskal Herrian. Galdeiezu ea ezagutzen duten hileta-erritu zaharkitu edo aiantzi horietakorik, bai euren inguru hurbilean, bai urruneko herrietan. (5')

Atazaurrea: lexikoa aztertu

- Ikasleek, binaka elkartuta, “hil” hitzaren inguruan sortu dugun mapa lexikala aztertuko dute, eta mapa horren gainean egiten zaizkien sei galderari idatziz erantzuten saiatuko dira. (10')

! Oharra: Atariko hiztegi-ariketa honen arrazoia aski begibistakoa da: atazan zehar sarri samar erabili beharko dituzte, seguruenik, mapa horretan bildutako hitz asko eta asko. Garbi dago, bestalde, mapa lexikalean lexikoaren eraketari eman diogula garrantzia.

- Irakaslea gidari dela, zuzendu itzazue ikasleek sei galdera horiei emandako erantzunak. Argitu itzazu sor litezkeen zalantzak eta galderak. (10')

ZUZENKETA-ORRIA

1. Goiko multzokoek (garbitu, akabatu, erail) izaera iragankorra dute (nor eta nork sintagmak eskatzen dituzte: norbaitek edo zerbaitek norbait edo zerbait “garbitu”, “akabatu”, “erail” edo “hil”). Beheko multzoko “zendu”, berriz, aditz iragangaitza da. “Hil” aditzak, beraz, bi erabilerak onartzen ditu, iragankorra eta iragangaitza.
2. “A” multzoko hitz guztiak hitz eratorriak dira (“hil” gehi atzizkia).
Hilgarri: hiltzen duena, heriotza dakarrena.
Hilketa: hiltzea; norbaitek norbait hiltzea.
Hilkor: heriotzaren mendean dagoena, noizbait hil beharra daukana.
Hilkortasun: hilkorra denaren nolakotasuna.
Hiltzaile: (Norbait) hiltzen duena.
Hiltoki: hiltzeko tokia.
3. Bi multzoetako hitzak, berez, “eguzki-lore” motako hitz-elkarketak dira, baina “B” multzokoak hitz ihartuak dira eta “C” multzokoak, berriz, ez**.
- 4.
5. hileta-bazkari: “comida póstuma”
hileta-erritu: “rito funerario”
6. ehorztetxe: funeraria (empresa encargada de la conducción y entierro de difuntos).

** Ikus Euskaltzaindia (Lef Batzordea) 1992 Hitz elkartuen osaera eta idazkera In Hitz Elkarketa-4. Euskaltzaindia. 81-82. orr.

Atazaurrea: aurrezagutza plazaratu eta aurreikuspenak egin

- Ikasleak, oraingoan ere binaka elkartuta, **5. bideo-pasartean** agertuko diren hileta-erritu horiek kronologikoki ordenatzen saiatuko dira. Lanaren zati handi bat egin daukate, hamahiru errituetatik zazpiren kokalekua geuk ematen baitiegu, laguntza gisa. (5-10')

! Oharra: Ez dio ardurarik hurrenkera zuzena asmatzen ez badute ere, ariketaren helburua besterik baita: ondoren ikus-entzungo duten erreportajeari buruzko aurreikuspenak egitea, eta gai horren gainean duten aurrezagutza ateraraztea, erreportajea samurrago ulertu ahal izateko.

- Guztion artean, irakaslearen gidaritzapean, ikasleek egindako hurrenkera-proposamenak komentatu eta zuzenduko dira arin-arin. Zerrendako errituren baten esanahia ulertzeko arazoak izan dituztela ikusten baduzu emaitzietan argibideak, lexiko aldetikoak nahiz kulturaren ezagutzarekin zerikusia dutenak. (10')

! Oharra: Argibideotan tentuz jokatu, zeren eta, gehiegi luzatuz gero, erreportajeak interesa galduko bailuke. Ez da komeni aldeaz aurretik erreportajea oso-osorik azaltzea.



ZUZENKETA-ORRIA

1	Hilotza prestatu
2	Ganadua gobernatu eta zintzarriak kendu
3	Gorpua ur bedeinkatuz ziprztindu erramu-adarrarekin
4	Hil berria eman erleei
5	Gelako leihoa ireki
6	Ispiluak oihal beltz batez estali
7	Zenduaren oheko lastaira erre
8	Gau-bela egin
9	Segizioa osatu eta elizara abiatu andabidetik
10	Bidegurutzeetan gelditu eta aitagurea esan
11	Argizaiolak eta meza-diruak ipini
12	Hil-kanpaiak lagun, segizioak kanposanturako bideari ekin
13	Defuntuaren etxean bazkaldu

Ataza: bideo-erreportajea ikus-entzun

- Ikasleek **5. bideo-pasartea** ikus-entzungo dute. Saia daitezela erritu bakoitzaren inguruan ematen diren argibide eta azalpenak ohar laburren bidez jasotzen (nork, non, noiz, nola, zertarako...). Oharrotan, jakina, ezingo dute informazio guztia xehe-xehe bildu; irizpide selektiboarekin jokatu beharko dute, gauzarik esanguratsu eta deigarrienak bakarrik jasoz. (10')

! Oharra: Erritu batzuei buruz informazio gutxitxo ematen du erreportajeak. Dena den, guztiei buruz atera liteke zerbait, testutik ez bada, irudietatik.

- Binaka bilduta, ikasleek alderatu eta komentatu egingo dute errituen gainean jasotako informazioa. Bien artean esaldi bat idatzi beharko dute hamahiru errituetako bakoitzaren gainean, erreportajearen ulertu uste dutena adieraziz. (15')



Feedbacka

- Guztion artean, irakaslearen gidaritzapean, birpasa itzazue banan-banan hamahiru errituak. Esaiezu ikasleei azaltzeko esaldietan jaso duten informazioa. Ikasleen ekarpenetan oinarrituta, saia zaitez ulerkuntza aldetiko ñabarduretan sakontzen eta gaizki-ulertuak argitzen. (15')

Atazaostea: hileta-errituak baloratu

- Bideo-pasartean azaldu diren hamahiru erritu horiek baloratzeko eskatuko diegu ikasleei. Aukera ditzala bakoitzak bere iritziz bitxiena, zaharkituena, atzerakoiena eta interesgarriena izan litezkeen errituak, eta pentsa dezala zein arrazoirengatik egiten duen aukera hori. (2')
- Guztion artean, modu informalean eta gehiegi luzatu gabe, komenta itzazue ikasleen iritziok. (10')

Gramatika eta diskurtsoa

- Ikasleek bideo-pasartearen transkripzioko lehenengo bi lerrokadak aztertuko dituzte. Azterketaren arretagunea aditzaren erabilera izango da: iraganeko ohiturak azaltzeko erabil daitezkeen aditz-tipoak (denbora eta aspektuari buruzko gorabeherak). Bi lerrokada horietan agertzen diren aditz-tipoak taulara ekarriko dituzte. (3')

! Oharra: Ikasleen liburuko transkripzio honetan zenbait aldaketa txiki egin behar izan ditugu testua txukunago aurkeztearren. Beraz, da hitzez hitzeko benetako transkripzioa.

ZUZENKETA-ORRIA

IRAGANEKO OHITURAK ADIERAZTEKO ADITZ-FORMAK

-T(Z)EN + ADITZA IRAGANEAN: "hasten zen", "egiten zuen", "egoten zen"
-ADITZ PARTIZIPIOA + OHI + ADITZA IRAGANEAN: "izan ohi zuen"
-KO + ADITZA IRAGANEAN: "uztartuko zizkion", "arduratuko zen",
"ohartaraziko zituen", "kenduko zizkien".

- Ondoren, berridatzi egingo dituzte transkripzioko bi lerrokadak. Berridazketa horretan, lehenaldian zegoena orainaldian ipintzen saiatu behar dute aditz-formetan gertatzen diren aldaketei erreparatuz. Bukatutakoan, esaiozu ikasle bati irakurtzeko bere testua klase osoaren aurrean. Egin itzazue egin beharreko zuzenketa guztiak. (10-15')

ZUZENKETA-ORRIA

TESTU BERBERA ORAINALDIAN IDATZITA

Dena hasten da aldeko edo baserri hurbileneko etxejaunaren etorrerarekin eta hilotzaren prestaketarekin. Hau egiteko ardua normalean auzoko etxeandorren batek izan ohi du. Honek zenduaren gorpua garbitu eta begiak itxi ondoren, beztitu egiten du haren arropa onenekin edo erlijio-ordenaren bateko fraide-abitoaz. Hurrena eskuak uztartuko dizkio bular gainean eta gurutzea ipini bertan. Honela gorpua prest egoten da familiartekoei eta gainerako auzkokideei harrera egiteko.

Bien bitartean, aldeko etxejauna, normalean zenduak beste inorekin baino harreman estuagoak zituen gizona, etxeke zereginen arduratuko da. Ganaduak ohartaraziko ditu nagusiaren heriotzaz, zutiarazi egingo ditu etzanda badaude eta jaten emango die. Hau egin ondoren, zintzarriak kenduko dizkie etxe guztian errespetuzko isiltasun-giro bat sortuz.

- Bete ezazue denon artean Orainaldiko ohiturak adierazteko aditz-formak izeneko taula. (3')

ZUZENKETA-ORRIA

ORAINALDIKO OHITURAK ADIERAZTEKO ADITZ-FORMAK

-T(Z)EN + ADITZA ORAINALDIAN: “hasten da”, “egiten du”, “egoten da”
 -ADITZ PARTIZIPIOA + OHI + ADITZA ORAINALDIAN: “izan ohi du”
 -KO + ADITZA ORAINALDIAN: “uztartuko dizkio”, “arduratuko da”,
 “ohartaraziko ditu”, “kenduko dizkie”.

■ Egin ezazue bi tauletan (iraganekoa eta orainaldikoa) bildutako aditz-tipo horien azterketa. Honako galdera hauen bidez bidera dezakezu azterketa hori: (5')

1. Beste formularik ezagutzen al duzue iraganeko nahiz orainaldiko ohiturak adierazteko?
2. Ezer arrarorik ikusi al duzue taulan jasotako forma horietakoren batean? Zeinetan? Zergatik?
3. Zein dela uste duzue gehien erabiltzen den forma?

ZUZENKETA-ORRIA

ERANTZUNAK:

1. Hiru forma horietaz aparte, euskarak ez du ohiturak adierazteko beste formularik.
2. Arraroena, zalantzarik gabe, “-KO + aditza (iraganean, orainaldian)” forma dugu. Badirudi, maiztasun urriko erabilera dela oso, kutsu estilistikoa duena eta gehienbat prozesu baten barneko ekintzak izendatzeko erabiltzen dena.
3. Beste bi formek oso tradizio zabala dute eta maiztasun handiarekin erabiltzen dira.

3

Atazaurrea: erreportajearen azken zatiaren transkripzioa komentatu

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko bideo-erreportajearen azken zatiaren transkripzioa. Pasarte labur horretan hainbat kezka adierazten dira hileta-errituek izan duten bilakaera dela eta. (2')
- Hirunaka bilduta, komenta eta eztabaida ditzatela testu horretako baieztapenen inguruan sortutako hiru galderak. (5')
- Egoki iritzi gero, komenta itzazue hiru galderak denon artean. (5-10')

Atazaurrea: argazkiak eta oin-testuak lotu

- Irakur dezatela ondorengo hamabost argazkien aurkezpen-testua. Testu horrek dioen bezala, hamabost argazki horiek heriotzaren inguruko hainbat gai eta ideia islatzen dute, heriotzaren gaur egungo esanahia agerian uzten dutenak. Argazkiekin batera, beste taula batean, desordenaturik, argazki horiei dagozkien oin-testuak ere aurkituko dituzte, argazkien interpretazioa egiten laguntzen dutenak. Eman diezaiotela bistadizo azkar bat bai argazkiei eta bai oin-testuei. (5-10')
- Binaka bilduta, hamabost argazki horiek bakoitza bere oin-testuarekin lotzen saiatuko dira, hau da, oin-testu bakoitzari zein argazki dagokion zehazten. (5-10')
- Denon artean, komenta itzazue aurreko puntuan egindako uztarketa edo loturak. Desadostasunak sor daitezkeenez hona hemen, badaezpada ere, zuzenketa-orria: (5')



ZUZENKETA-ORRIA

ZENBAKIA	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.	15.
HIZKIA	J	L	N	M	O	D	I	E	F	G	B	C	H	K	A

Ataza: argazkiak sailkatu eta iritzia azaldu

- Ikasle bakoitzak banan-banan birpasatuko ditu hamabost argazkiak eta dagozkien oin-testuak. Argazki bakoitzak adierazten duen ideia, ohitura, kezka edo dena delako horren balorazioa egin behar dute. Iruditzen bazaie alderdi onak gehiago edo nabarmenagoak direla, ipin dezatela argazki horren zenbakia sailkapen-taulako ezkerreko zutabean. Aitzitik, kaltegarria edo kezkarria irudituz gero, eskuineko zutabean jarri beharko dute. “TARTEKOA” zutabean, berriz, ez aldeko eta ez kontrako iritzi garbirik sortzen duten argazkiak bilduko dituzte. (5-10’)

! Oharra: “TARTEKOA” zutabean ahalik eta argazki gutxien biltzen saiatu behar dute, ondorengo iritzi-trukaketa biziagoa eta aberatsagoa izan dadin.

- Har itzazue hamabost argazkiak eta komenta itzazue banan-banan. Seguruenez, ikasleek aurreko puntuak egindako sailkapenak ez dira bat etorriko, eta horrek aitzakia polita emango dizue nor bere iritzia azaltzeko eta beste ikaskideen ikuspegia eztabaidatzeko. Eztabaida-saioa moderatzea eta gidatzea tokatuko zaizunez, egizu kontu puntu asko ager litezkeela ikasleen komentarioetan, besteak beste, honako hauek: (45’)

KOMENTARIOAN AGER DAITEZKEEN PUNTUAK

A. Ohitura edo gertakariaren azalpen xehea.

- Noiz, nola, nor, zergatik... gertatzen da?
- Norberak bizi izandako antzeko esperientzia baten kontakizuna, labur-labur.

B. Iragan hurbilarekin alderatu.

- Nola ziren gauzak lehen eta nola dira orain?
- Zer dela eta gertatu da bilakaera hori?
- Zer aurreikusten da etorkizunerako?


C. Balorazio objektiboa eta kritika.

- Zein dira ohitura horren alderdi onak? Zein onura ekarri ditu?
- Zein dira alderdi txarrak? Zein kalte ekarri ditu?
- Zein da zure iritzia ohitura horri buruz? Alde ala kontra azalduko zinateke? Zergatik?

Feedbacka

- Osa ezazue denon artean Eztabaida onaren ezaugarriak izeneko taula. Idatz itzazue puntu guztiak arbelean. (5’)

EZTABAIDA ONAREN EZAUGARRIAK



- Taldekide guztiek parte hartzea.
- Gaia bere zabaltasun osoan jorratzea.
-
-
-
-
-
-

- Galdeiezu ikasleei ea zein ezaugarri bete diren egin berri duten eztabaidan, eta zein ez. Aztertu eta komenta itzazue denon artean horrela gertatu izanaren arrazoiak. (10-15')



4. ATAZA: AMESGAIZTOAK 240'

Helburu nagusia:

- Ikasle bakoitzak amesgaizto bat kontatuko du idatziz.

Helburuak:

- Laburmetraia baten atalak elkarri kontatu eta istorioa lotu eta ulertzea.
- Laburmetraiako istorioaren zenbait ezaugarri aztertu eta eztabaidatzea.
- Narrazio labur bat modu estentsiboan irakurri eta laburmetraiarekin alderatzea.
- Bideo-pasarte labur bat modu estentsiboan entzutea.
- Nork bere amesgaiztoa kontatzea idatziz.
- Sortutako testuen balorazioa egitea.

Zertan den:

- Ataza honen amaieran, **laugarren azpiatazan**, ikasle bakoitzak amesgaizto bat kontatu beharko du idatziz. Atazaren ibilbide didaktikoa azken eginkizun horren bideragarritasuna eta arrakasta bermatzeko diseinatua dago.
Lehenengo azpiatazan, laburmetraia* baten gainean egingo dute lan. Ikasle bakoitzak laburmetraiaren heren bat baino ez du ikusiko eta beste bi ikaskiderek elkarlanean saiatu beharko du istorioaren une eta hari guztiak lotzen eta ulertzen.
Bestalde, laburmetraian kontatzen den istorioak amesgaizto baten trazarik duen aztertu beharko dute: amesgaiztoen zein ezaugarri betetzen dituen eztabaidatu, unerik zirrargarrienak identifikatu eta azaldu, etab.
Bigarren azpiatazan, Bernardo Atxagaren narrazio labur baten pasarte izango dute aztergai. Laburmetraiarekin egin duten bezalaxe, testu horretan ere amesgaiztoen ezaugarriak antzematen saiatu behar dute ikasleek.
Hirugarren azpiatazan, amesgaizto gehien oinarrian egon ohi den elementu fobikoari erreparatuko diogu. Aurreko azpiatazako pasarte birpasatuta, Atxagaren kasuan elementu hori zein izan litekeen asmatzen ahaleginduko dira ikasleak. Azkenik, elkarriketaren hirugarren atalean, Atxagak berak esango digu berarentzat bereziki beldurgarria den

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: argazkiak ikusi eta aurreikuspenak egin

- Egin ezazu atazaren aurkezpen laburra ikasleen liburuko sarrera-testuaz baliatuz. Garbi gera dadila amesgaiztoak izango direla hizpide eta laburmetraia* baten gainean egin beharko dutela lan. Bidenabar, girotze-faserako egoki iritzi gero, harira datozen bestelako kontu batzuk ere aipa ditzakezue, hala nola, amesgaiztoek orokorrean zineman duten presentzia eta trataera. (5')
- Laburmetraiaren hainbat une jasotzen dituzten hamabi argazkiei bistadizo azkar bat emango diete ikasleek. Binaka bilduta, komenta ditzatela istorioaren gainean aurreikus daitezkeen kontuak: nolako giroa izango duen, zenbat pertsonaia dituen, non gertatzen den... (5')
- Esaiezu bikoteei azaltzeko, guztien aurrean eta gehiegi luzatu gabe, laburmetraiaren nondik norakoei buruz egin berri dituzten aurreikuspenak. (10')

Atazaurrea: laburmetraiaren zatia ikus-entzun eta kontaketa prestatu

- Bana itzazu ikasleak hiru taldetan (ikasle-kopuru berekoak, ahal bada). Talde bakoitzak laburmetraiaren hiru zatietako bat bakarrik ikusiko du, jakin gabe zati hori hasierakoa, amaierakoa ala tartekoa den. Ikusi bitarteko lana (**6., 7. edo 8. bideo-pasarte**) aski sinplea izango dute: aurreko puntuko hamabi argazkietako zein lau agertu diren zehaztu eta istorioan agertu diren hurrenkeran ipini (zenbatu ditzatela batetik laura). (15')

! Oharra: Talde batekoak euren zatia ikusten ari diren bitartean, beste bi taldeetako ikasleek ikasgelatik kanpo egon beharko dute euren txandaren zain. Egizu kontu zati bakoitzak hiruzpalau minutu irauten duela, ez gehiago.

* McLean, Alison 1989 Kitchen Sink. Hibiscus Film eta the Short Fund of the New Zealand Film



- Bukatutakoan, ikasle bakoitzak ikusi berria duen atalaren kontaketa prestatuko du taldekideekin elkarlanean. Prestaketa-fase honetan hainbat konturi erreparatu beharko diote taldekideek: lehendabizi, pasarteko une garrantzitsuenak gogoratu eta sekuentzializatu (aukeratutako lau argazkiak zein izan diren eta nola ordenatu dituzten aztertu) eta, gero, pasartearen kontaketa sor daitezkeen zailtasunak aurreikusi (lexiko aldetikoak, denborazko loturak, etab.) eta horiei aurre egiteko moduren bat bilatu. Prestaketa-fase honetan irakasleak gertu egon beharko du ikasleen galdera eta laguntza-eskariei erantzuteko. (10')

Ataza: nork bere atala kontatu eta istorioa osatu

- Laburmetraiaren zati ezberdinak ikusi dituzten ikasleekin hiru laguneko talde berriak eratu behar dituzu. Prestaketa-fasean egindako lanean oinarrituta, taldekide bakoitzak berak ikusitako zatia kontatuko die bere bi taldekideei. Kontaketa horretan, pasarteko lau argazkiak erabili beharko ditu gutxieneko euskarri gisa. (10-15')
- Behin hiru taldekideen azalpenak entzunda, istorioa ordenatzen eta hari narratiboa bilatzen ahalegindu behar dute hiruren artean. Ilun edo lotura logikorik gabe ageri diren eskenak ulertzen eta josten saiatu behar dute elkarri lagunduz. Amaieran, hamabi argazkietako une horiek bata bestearen ondoren, hurrenkera egokian, ipintzea lortu behar dute. (10-15')

Feedbacka

- Ikasleek laburmetraia osoa ikusiko dute (9. **bideo-pasartea**), inolako etenik gabe eta txukun-txukun josia. (12')
- Amaitutakoan, bil daitezela lehengo hirukoteetan eta komenta ditzatela euren liburuko bi galderak. Lehenengoan, aurreko puntuko joste-lanaren arrakasta baloratu beharko dute, eta bigarrean, laburmetraiaren une gorenak, hots, beldurgarrienak, nazkagarrienak edo zirrargarrienak identifikatu eta azaldu beharko dituzte. (10')
- Komenta itzazue, guztion artean eta labur antzean, bigarren galderaren inguruan sortu diren iritziak. (10')

Atazaostea: amesgaiztoen zein ezaugarri betetzen dituen aztertu

- Aurreko puntuko hirukote berberetan bilduta, ikasleek Amesgaiztoaren ezaugarriak taularen “laburmetraia” deritzan zutabea bete behar dute. Eztabaida dezatela ezaugarri horietako bakoitza laburmetraian agertu den ala ez, eta ipin dezatela gurutze bat dagokion laukitxoan baldin eta ezaugarri horren zantzurik ikusi uste badute. Horretaz aparte, taulako bederatzi puntuko zerrenda hori osatzeko balio lezakeen beste ezaugarriren bat ere ikusi baldin badute, idatz dezatela taulan. (10')
- Denon artean, komenta itzazue banan-banan taulako ezaugarriak. Azal dezatela talde osoaren aurrean zein ezaugarri

! Oharra: Amesgaiztoaren ezaugarriak taularen beste bi zutabeak (“Atxaga” eta “Ikaskidea”) bete gabe utziko dira, momentuz. Geroago, horretarako unea iristean, geuk aginduko diegu taulara itzuli eta bi zutabe horiek betetzeko.

2

Ataza: narrazioa irakurri eta amesgaiztoen zein ezaugarri betetzen dituen aztertu

- Ikasleek Bernardo Atxagaren Lau aldiz elur izeneko narraziotik ateratako pasarte laburra irakurriko dute modu estentsiboan. Esaiezu saiatzeko kontakizuneko egoera hori begiekin ikusten, bisualizatzen, alegia. (5')

! Oharra: Ez ezazu ikasleen aurrean narrazioaren izenburua aipatu, zeren eta bestela hirugarren azpiatazak grazia guttia galduko bailuke.

- Hirunaka bilduta, eztabaida dezatela Amesgaiztoaren ezaugarriak taulako zein ezaugarri agertzen diren irakurri berria duten pasarte horretan. Birpasa ditzatela ezaugarriak banan-banan eta marka ditzatela gurutzez (“Atxaga” zutabearen euren iritzi Atxagaren testuan agertzen direnak. (10')

* Atxaga, B. Lau aldiz elur. Euskaldunon Egunkaria. 98.08.02



Feedbacka

- Komenta itzazue denon artean, modu ireki eta informalean, Atxagaren narrazioa aztertzerakoan aurreko puntuan sortu diren iritziak, desadostasunak, zalantzak eta abarrak. (5-10')

Atazaostea: bi amesgaiztoak alderatu

- Hirunaka bilduta, Amesgaiztoaren ezaugarriak taularen lehenengo bi zutabeak ("Laburmetraia" eta "Atxaga") alderatu eta euren liburuko bost galderak komentatuko dituzte modu informalean. (5-10')
- Gehiegi luzatu gabe, komenta itzazue denon artean galdetegiko bost puntu horiei emandako erantzunak. (5-10')

3

Atazaurrea: elementu fobikoari buruzko hipotesia egin (aurreikuspenak)

- Atazaren sarrerako testuan esaten zaien bezala, irakurri berria duten narrazio laburra elementu fobiko baten gainean dago eraikia. Birpasa dezatela testua eta pentsa dezatela zein izan daitekeen delako elementu fobiko hori, AUTOA, ELURRA, HOTZA, IRRATIA ala ERREPIDEA. (3')
- Hirunaka bilduta, komenta dezatela labur-labur zein hipotesi egin duten eta zergatik. (3')

Ataza: bideo-pasartea ikus-entzun eta galderei erantzun

- Atxagari egindako elkarrizketaren hirugarren atala ikus-entzungo dute ikasleek **10. bideo-pasartean**. Idazle gipuzkoarrak berarentzat bereziki beldurgarria den elementu fobiko hori zein den azalduko du (beraz, aurreko puntuko hipotesietan asmatu duten jakin ahal izango dute ikasleek). Entzun ditzatela adi-adi elementu fobiko horren inguruan azaltzen dituen kontu guztiak. (3')
- Bideo-pasartearen ikustaldia bukatutakoan, ikasleek, hirunaka bilduta, euren liburuko bost ulermen-galdera horiei erantzungo diete, ahoz. (5')

Feedbacka

- Guztion artean, komenta itzazue bost galdera horiei emandako erantzunak. Komenigarri iritiz gero, emaezu elkarrizketa-atala berriro ikus-entzuteko aukera. (5')

4

Ataza: nork bere amesgaiztoa idatzi

- Ikasle bakoitzak bere amesgaiztoa idatziko du. Birpasa dezatela Nire bizitzako unerik larriena atazan osatu duten beldurren katalogoa. Beharbada, katalogo horretako elementuen artean amesgaiztoa gogoratzen edo asmatzen lagunduko dien argi-izpiren bat aurkituko dute. Esaiezu, bestalde, gogoan izateko zein diren amesgaizto baten ezaugarri arruntenak, eta Atxagaren testua ere hor dutela eredu bezala erabili ahal izateko. (30-40')

! **Oharra:** Ikasleren batek amesgaiztorik izango ez balu, bat asma dezala. Ikasleek sortu beharreko testua Atxagarena bezalakoa izango da: laburra eta sinplea.

Feedbacka

- Idazten bukatutakoan, binaka bildu eta egindako idazlanak trukatu dituzte euren artean. Amesgaiztoaren ezaugarriak taulara joko dute berriro eta "ikaskidea" deritzan zutabearen ikaskidearen amesgaiztoan ikusi uste dituzten ezaugarriak markatuko dituzte, aurreko bi zutabeetan egin duten bezalaxe. (5')
- Amesgaiztoaren ezaugarriak taulan egindako azterketatik abiatuta, testuaren gaineko iritzia emango diote bi ikasleek bata besteari. Iritzi-emate hori bideratzeko, gutxieneko galdera-sorta labur bat ere proposatzen zaie, lagungarri gisa, euren liburuan. (5-10')

1. BIDEO-PASARTEAK

1. ATAZA: NIRE BIZITZAKO UNERIK LARRIENA



1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'43"

- ANTTON** Tira, Bernardo, zer? Zer moduz? Gustura etorri haiz?
- B.A.** Bai, oso gustura.
- ANTTON** Ba, orduan, hasi egingo gaituk, pixkanaka-pixkanaka, ze, ba... orain zuka hitz egin beharko diagu, ze orain arte hika bai, baina hemen jendaurrean hitz egiteko agian hobe diagu zuka hitz egitea, ezta?
- B.A.** Bai. Nik uste dut hobe dela, bai, zuka hitz egitea. Lagun artean hika hitz egitea ondo zegok, baina jendaurrean, errespetu pixka bat hartu eta zuka egin beharra zegok.
- ANTTON** Bueno, beste gai bati helduko ziagu, eh, beldurra diagu gaur hizpide, eta orduan beldurrarekin hasiko gaituk.
- B.A.** Bai, oso ondo.
- ANTTON** Beno, badakik, beno, azken bolada honetan ba, beldurra... ba, gauza asko egiten direla beldurraren inguruan, ez? Nonahi ospatzen da beldurrezko zine-astea, liburuak ere, ba, asko dira beldurraz hitz egiten dutenak, zuk zeuk ere baduzu zenbait lan eginak, ba, mamuen inguruan eta abar, eta orduan jolas txiki bat proposatuko nizuke nik hemen, denen aurrean egiteko.
- B.A.** Oso ondo.
- ANTTON** Ba, hemen, zakutxo honetan galdera-mordoxka bat sartu ditugu beldurraren inguruan. Bada, zoriz aterako ditugu batzuk eta, bueno, aber zer erantzuten duzun. Prest?
- B.A.** Bai, bai. Oso prest.
- ANTTON** Benga, honela hasiko gara.
- B.A.** Lehiaketetan bezala, prest.
- ANTTON** Bai, saririk gabe hemen, eh?
- B.A.** Bueno, ondo. Ikusiko dugu hori gero.
- ANTTON** Ea zer dioen honek. A! "Zer da beldurra, Bernardo? Zer daukate komunean gauza beldurgarriek?"
- B.A.** Nik uste dut bi galdera daudela oso zailak, beti. Bata da zer, eta bestea da zergatik. Ahal dela, ez da galdetu behar zer eta ez zergatik, ze beti arazoak izango ditugu, ez? Zer galdetzen denean badirudi ari garela bere muinari buruz, nolabaiteko esentzialitate baten eske ari garela. Eta hori ez da erraza. Nik uste dut beharbada, beldurraren definizio polit bat izan liteke, eta nik uste dut definizio honetan oinarritzen direla, esate baterako, beldurrezko filmak-eta egiten dituztenak, ba, ume bihurtzeko pertsona bat ume bihurtzeko dohaina daukan indar bat. Seguru asko... eta ni gogoratzen naiz ikusi nuela behin oso dokumental polita zen, ba, zine sarreran azaltzen ziren berealditako gizon puskak. Izugarritzko gizon itsusi eta handiak eta ematen zuten benetan berrero batzuk zirela, bueno, harakinak, ez dakit nola esan, eta gero ikusten zen eszena bat zine barruan, eta beraiek ikarazko beldurrezko filma bat ikusten ari ziren, eta benetan negarrez zeuden eta oihuka pertsonaiari lagundu nahian eta abar. Eta orduan, ba, hori zen, beraiek zinean eta pelikulari begira eta beldurra hartuz filmak isurtzen zuen, beldurra hartuz beraiek ere ume bihurtzen ziren. Orduan bere erreakzioak, gestuak eta dena ume-gestuak ziren. Eta nik uste dut, hori, hain zuzen ere, beharbada, hori da beldurraren zera, ez... dauka, zuk esaten duzu: alkohola zer da, ba? Beste gauza askoren artean da, gizon bat, pertsona bat, andra bat, zentzuzko pertsona bat, ba, txoro bihurtzeko indarra duen zerbait. Kasu honetan izango litzateke, ba, zentzuzko pertsona bat, ba, ume koxkor bihurtzeko dohaina duen zera bat, indar bat.



2. ATAZA: BELDUR MODERNOAK



2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'37"

ANTTON

Ea, bada. "2000. urtearen atarian, zeren beldur zara?"

B.A.

Nik uste... nola esango nuke?... beldurra ematen digunak lehenago seguru asko sosegua eman digu. Esan nahi dut: erlijioak, esate baterako. Erlijioak, ba, gaur egun, ba, leku askotan gertatu dena ikusita, zer gertatu den erlijioz kutsatutako gizarteetan, ba, orduan, horrek beldurra ematen digu, baina baita ere ulertzekoa da beldur horren atzetik, beldur horren abiapuntu bezala izan dela sosegua, lasaitasuna, erlijioak, lasaitasuna eta poza ematen zion jendeari, konfiantza eta abar. Uste dut gaur ere, eta datozen mila urteko horren beldurrak ildo honetatik joango direla. Eta hain zuzen ari naiz orain zientziari buruz. Zientziak dudarik gabe gaur egun duen estatutua da erlijio batena. Ez da inolaz ere, paradoxaz esaten dut hau, zientziaren estatutua ez da batere zientifikoa. Esan nahi dut, mintzatzen gara, esate baterako, zientziaz bat bakarra balego bezala, eta zientziak asko dira eta eredu asko daude zientzia bat aurrera eramateko. Eta gaur egun dagoena ez da zientzia zehazki, ez da... beste zerbaite da. Da, bueno, teknokrazia baten filosofia bat da eta abar. Eta seguru asko etorkizunean hortik etorriko dira arazo handienak jendeak fede itsua diolako zientziari. Hori da, zientzia esan eta kitto. Ematen du aipatu duzula Jainkoaren izena eta inolaz ere ez da hori. Eta hemen proba garbi bat izan dugu eta ni gogoratzen naiz hau Etxenikerekin, ba behin halako eztabaida bat izan nuela, ez?, ba, indar nuklearrari buruz. Esate baterako, orain dela 25 urte esaten zen hori oso merkea zela. 25 urte geroago badakigu batez ere hondakinen arazoengatik hori benetan dela, ez bakarrik halako energia siniestro bat, ez dakit zenbat mila urtetan bizirik egoten dena eta arriskugarri, baizik eta gainera oso garestia dela. Eta orain dela 25 urte zientzia delako batek esaten zuen beti oso merkea zela eta jendeak sinisten du azaltzen delako han, ez halako garai bateko sotana batekin, baizik eta azaltzen delako hemen txartel bat duela eta esanez ba, zientziaren izenean ari dela. Eta seguru asko hortik etorriko da, teknologia guztiak ez dira onak. Hori bistakoa da, esaterako, teknologia nuklearrak arazo izugarriak ekarri dizkio eta gaur egun, ez dakit ibili zaren, baina Errusiaren hegoalde horretara edo joaten baldin bazara, ikusiko duzu ze korrika etorriko zaren etxe aldera, zeren benetan beldurgarria da han industrian... nuklear industriarekin gertatutakoa. Nik uste dut hortik etorriko dela benetan arriskurik handiena. Gaurko fedea, esango du, gaurko egileak, ekarri ditu... ekarriko ditu etorkizuneko lokatzak, ekarriko ditu etorkizuneko beldurrak.



3. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'35"

Aupa, ni lñaki naiz, Santurtzikoa naiz eta bueno, ezker aldekoa naizenez, hemengo industria, fabrika eta gainontzeko arazoak ondo ezagutzen ditut. Azkenaldi honetan oso pil-pilean dago lindanoa birziklatzeko lantegiaren kontua. Lantegi hori hau da, hor dago gure atzean, eta, egia esanez, polemika handia piztu du, ba, jendearentzako beldurgarria izan daitekeelako. Lindanoa beraz, ba, omen da intsektizidak egiteko erabiltzen zen materia bat, ez dakit nik oso ondo zelangoa den, baina bueno, edozelan ere materia pozointsu bat omen da eta hor ditugu gordeta, nonbait, zakutan 5.000 tona inguru. Enpresa duela 15 urte edo itxi zen eta geratu zitzaizkien hondakin guztiak hor bertan utzi zituzten barruan, zerratuta. Eta gaur egun hor daude, plastikozko zakutan bilduta, baina inongo babesik gabe. Badaude beste batzuk lindano eta lurra nahastuta, baina horiek hortik gordeko dituzte mendian, gaur egunean birziklatu ezin daitezkeelako. Egia esanez, ba, lindanoak piztu du polemika bizia. Jendea beldur da ea zer gerta litekeen, ba, honek sua hartuko balu, edo honek eztanda egin ote dezakeen. Inguruan jende asko bizi da eta, bueno, horrek arazo handiak sortuko lituzke.

Uste dut guztion oroimen kolektiboan gordetzen ditugula oraindik istripu larriak, inguruan gertatutako lantegien istripu larriak. Gogoratzen dut duela urte asko gas-enpresa batek eztanda egin zuela eta hainbat jende geratu zen kale gorrian etxe barik. Horiek gure auzoaren ondoan egin... horiei gure auzoaren inguruan egin zieten auzotxo bat, ba, XXX osatutako auzotxo bat. Edo bueno, duela beste urte batzuk portuan gertatutako beste eztanda bat. Neurri honetan normala da beldurra izatea baina nik uste dut are beldurgarriagoa dela lindanoa hor botata egotea bera birziklatzeko eta ez arriskutsu bihurtzeko planta bat ezartzea baino.



4. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'32"

Bueno, uste dut etorri zaretela niri galdezka aber zer iruditzen zaidan, ba, artikulua honetan, egunkarian azaldu den artikulua honetan, ba, emandako informazioa zer iruditzen zaidan, batez ere ikusi ninduzuelako atzo mahainguru horretan, alzheimer-i buruzko mahainguru horretan, ezta? Bueno, esan beharra daukat ni ez nagoela zuzenean, ba, inplikaturik alzheimer duen pertsona baten bizitzan, baizik eta ni joan nintzen lagun bat, ba, pixka bat, ba, laguntzera, hain zuzen ere. Eta lagun hau nire lankidea da eta bere ama da, zera, alzheimer gaisotasuna duen pertsona eta, egia esan, lankide honen jarrera edo, bueno, portaera izugarri aldatu da azkeneko hilabetetan, eta bera, bere barruko mundua ikusita, oso kezkatua zegoen ikusita lanean ez zegoela lehen bezalaxe, ba, pixka bat dispersoa zegoela, lanari ez ziola heltzen, edo ez zion eusten lehen bezalaxe eta. Eta jakin arazi nahi zigun, ba, zer den gaisotasun horren inguruan bizi den pertsona baten ikuspegia, problematika eta. Eta eskatu zidan benetan laguntzeko, eta joateko mahainguru horretara eta nik neronek ikusteko eta jabetzeko horren garrantziak. Eta hemen artikuluan dioen bezala... artikulua honek dioen bezala, ba, egia da pertsona hauek laguntza handia behar dutela, bai gaixoei eta baita beren inguruan bizi diren senideek ere behar dutela, ez bakarrik laguntza materiala baizik eta laguntza psikologikoa: zer egin, nola jokatu, bizitza nola bideratu, zeren bizi-kalitatea izugarri jaisten zaie, aurkitzen dira fenomeno ikaragarri batekin eta egunetik egunera aldatu egiten zaie bizimodua eta honek hori esaten zuen, ba, hitzaldian egon ziren adituek eta baita ere nire lankide honek, ba, profesionalizatu egin behar dela pixka bat zaintzailearen lana.

Beste gai bat izan zen baita ere, hemen aipatzen den bezalaxe, ba, botikena, ezta? Ba, badirudi pixkanaka ari direla botika batzuk pertsona hauen, ba, pixka bat, ba, sintomak eta atzerarazteko, baina horrek berak ematen du baita ere, ba, gaisotasun honen larriaren neurria, ezta? Ikusten dugu gure gizarteak gero eta posibilitate gehiago dauzkala, ba, zaharrago izateko, eta, ba agian, gero eta jende gehiago egongo dela, ba, gaisotasun honek jota edo izan litekeela. Eta ikusita jendeak... mahainguru horretan jendeak esaten zituen gauzak eta, ba, pixka bat beldurra sentitzeko moduko gaia da.



3. ATAZA: HERIOTZA, GAUR



5. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 9'5"

Dena hasten zen aldeko edo baserri hurbileneko etxejaunaren etorrerarekin eta hilotzaren prestaketarekin. Hau egiteko ardurua normalean auzoko etxeakoandarearen bati zegokion. Honek zenduaren gorpua garbitu eta begiak itxi ondoren bezitu egiten zuen bere arropa onenekin edo erlijio ordenaren bateko praile abituaz. Hurrena eskuak uztartuko zizkion bular gainean eta gurutzea ipini bertan. Honela gorpua prest zegoen familiartekoei eta gainerako auzokidei harrera egiteko.

Bien bitartean, aldeko etxejauna, normalean zenduak beste inorekin baino harreman estuagoak zituen gizona, etxeke zereginez arduratuko zen. Ganaduak ohartaraziko zituen nagusiaren heriotzaz, zutiaraziko zituen etzanda bazeuden eta jaten emango zien. Hau egin ondoren, zintzarriak kenduko zizkien abereei etxe guztian errespetuzko isiltasun giro bat sortuz. Apaizak ur bedeinkatuaz zipriztinduko zuen gorpua eta erresponstu bat errezatu. Ondoren, bertara bildutako lagun guztiek ere errezatu egingo zuten eta gorpua zipriztindu ur bedeinkatuaz erramu adar batekin.

Aldi berean, etxeke edo auzoko emakumeren batek hil berria emango zien erlei, hots, jainko eta gizonen arteko mezulariei.

Etxean, bitartean, leihoa zabaltzen zen arimari irteten uzteko eta bide batez ere, teila altxatzeari ekiten omen zitzaion. Oihal beltz batez estaltzen ziren ispiluak eta, zeuden etxeetan, armariak.

Auzokideen egitekoa zen, halaber, zenduaren oheko lastaira erretzea, eginkizun hau lastaiari lau kantoietan sua emanaz burutzen zen, eta ia beti, bidegurutzeren batean, agian garbikuntzaren sinbolo gisa.

Etxe barruan senide eta auzokideak gaubelan bildurik zainduaren arimaren alde errezatzen zuten. Erdian ogi-opariak zeuden gero elizarentzat emango zirenak.

Usadioak gure egunetara arte batere aldatu gabe gorde duen ordena baten arabera, apaiza buruan zela, segizioa elizarantz abiatzen zen andabidetik, hau da, hildakoen bidetik. Bide honek garrantzi handia zeukan, zalantza gabe, berau baitzen etxea eta hilobiaren arteko lotura espiritual eta fisikoa. Ospakizun hauetan beti erabiltzen zen bide hau eta auzoko kide guztiek errespetatzen zuten. Bertan bidegurutzeren bat bazegoen segizioa gelditu egiten zen eta apaizak aitagure bat esaten zuen.

Heriotza inguratzen duten elementu materialeen artean badira batzuk azpimarratzea merezi dutenak, hala nola argizaiolak eta hartuemana edo meza-diruak zenduari ondare espiritual bat segurtatzen diotenak. Hauekin bere arimaren salbaziorako mezak atera eta erresponstuak errezatuko baitizkiote. Aipatu dugun beste elementua, argizaiola, giza formako ohol txiki apal hori, bere figura geometriko bitxiez dekoratua, argi eta garbi mintzo zaigu gure hileta erritoetan suak eta argiak duten esanahi eta garrantziaz, gure arbaso zenduen bizi-iraupenaren eta presentziaren sinbolo gisa.

Elizkizunak amaiturik segizioa berriro ere formatu eta kanposanturako bidea hartzen zen hil-kanpaien doinu goibela lagun zutela, ezberdina hau zenduaren sexu eta adinaren arabera. Ehorzketa amaituta ahaide hurkoak eta andariak zenduaren etxera joaten ziren bazkaltzera. Ohitura zen bazkari hau egur hezeaz prestatzea, horretarakoxe bereziki moztua, eta sarritan, gaur egun ia mokadu bat jatera murriztua dagoena, garai hartan egundoko tripa-festa izaten zen familia askorentzat arazo ekonomiko larriak sortaraziz.

Berriro galdetzen dugu ea zein den heriotzaren esanahia gaur egun, hildakoak izkutatzen dituen gizarte honetan, heriotzari gauza arrotz gisa begiratzen dion, hileta erritoak ahazten dituen eta hil beharri larriduraz beterik begiratzen dion gizarte honetan. Eta ez antzinako gizarteek zeukaten irizpide baikorrago hartatik heriotza igarotze bat, prozesu natural bat bezala ikusten zutenak. Gizarte haietan hildakoak bizirik zirauen, erritoen bidez bizi-iraupena bermatzen zelako. Hilerriko bake isil eta narea da.



6. BIDEO-PASARTEA: LABURMETRAIAREN LEHENENGO ATALA

■ Iraupena: 4'58"



7. BIDEO-PASARTEA: LABURMETRAIAREN BIGARREN ATALA

■ Iraupena: 3'01"



8. BIDEO-PASARTEA: LABURMETRAIAREN HIRUGARREN ATALA

■ Iraupena: 4'42"



9. BIDEO-PASARTEA: LABURMETRAIA OSOA

■ Iraupena: 12'28"



10. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'46"

ANTTON

Aber, “zein da zure bizitzan izan duzun beldurrik handiena?”

B.A.

Ba, niri... galdera hau bai dela benetan erraza niretzako. Ez dakit badakizuen edo ez dakizuen, nire inguruko jendeak badaki. Nik izugarritzko ikara diot elurrari.

ANTTON

Elurra?

B.A.

Nik elurrari ikara handia diot. Seguru asko fobia bat da, haurtzarotik dakarkidana, orduan sortua, seguru asko eta niretzako unerik larriena beti da ustegabeen bidean edo elurrak harrapatzen baldin banau. Eta hori nire lagunek badakite eta horren aurrean... nola esango nuke... nirekin jokatzeko dute ba, nahiko zuhurtziaz benetan lehen esan dudana: nik ez dut, une horretako beldurra ezin dut menderatu. Beldurrik gain hartzen dit eta... bai, eta horregatik, hain zuzen ere, idatzi dut horrenbeste orri elurraren gainean, ez? Ba, benetan... ni txikitan gogoratzen naiz... zerbait esatearren, ez? gogoratzen naiz gure herriko gizon bat Mugats izeneko etxe batekoa, elur zurrumbilo batean itota hil zela, eta nik orduan, beharbada izango nituen 3 bat urte, eta gogoan daukat, eta litekeena da orduko oihartzun bat izatea nire gaurko... baina benetan oso garbia da nire kasuan. Nik horri diot... orain dela gutxi egon naiz ospitale batean operazio batean, ebakuntza bat ikusten eta jendeak esaten zidan: ba, seguru asko zorabiatu egingo haiz. Eta ez nintzen batere zorabiatu. Ez diot batere beldurrik, esaterako, odolari. Orain elurra hasi izan balu ebakuntzaren toki hartan, orduan seguru asko beldur batean jarriko nintzen.

ANTTON

Baina gogoan duzula, zuk zeuk ez duzu sekula, honela, egoera larrikeria bizi izan elurretan, ez?

B.A.

Gero izan ditut, eh?, elurrarekin... ni asko ibili naiz kaminoan, ez? Nik literatura bizi izan dut nolabait “Bit generation”ekoek bezala... beti egon naiz kaminoan, karreteran —on the road, ez?— Kerouac-ek esango lukeen bezala, eta askotan suertatu naiz oso eguraldi txarrekin karreteran eta... Nik gogoan daukat, esate baterako, behin egon nintzela Ramos Urangaren erakusketa bat aurkezten eta itzultzerakoan Gasteiza sekulako erauntsiak harrapatu ninduen eta oso-oso gaizki pasatu nuen.



11. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'25"

ANTTON

Hurrengo, aurrera. “Zein dira beldurrezko literatur pasarte baterako osagai ezinbestekoak?” Aipatu, horrela, pare bat edo.

B.A.

Zuk pertsonaia bat egoera bakarti batean jartzen baldin baduzu eta gauez jartzen baldin baduzu, gainera, egoera hori lehenengo pertsonan kontatzen baldin baduzu, eta, beraz, lehenengo pertsonan hitz egiten duen horrek arazo bat baldin badauka, orduan seguru asko nahikoa eta gehiegi da beldurrezko ipuin bat egiteko. Eman dezagun zuk... hartzen duzu oraingo gazte bat. Eman dezagun motorra ostu duela, festa batera joan eta motorra ostu du. Zuk jar ezazu mutiko hori bakarrik bidean, jar ezazu gaua dela, jar ezazu



inguruan hotsak daudela eta berak errudun sentitzen denez gero, ba, sekulako ikara daukala. Horrekin egin dezakezu... Gero, gainera, gauza bat dauka beldurrak, literarioki esan nahi dut, oso gozoa dena idazlearentzat eta hori da bukaera bortitzak bideratzen dituela. Denok dakigu beldurraren izenean, hobe esanda, beldurraren eraginez, pertsonak sekulako bortizkeriak egin ditzaketela. Nik uste dut gizakirik beldurgarriena beldurra duen hura dela, ez? Orduan, baita ere, ba, mutiko horrek, beharbada, ba, halako izu, halako ikara handi bat hartu eta igual baldarkeria bat egingo luke, gauza bortitz bat egingo luke. Eta horregatik, ba, literarioki ere beldurra oso emankorra da, ez? Bai, uste dut horrekin nahikoa izango litzatekeela.

ANTTON

Bakardadea, gaua, eta beldurra bera, ezta?

B.A.

Eta errudun-sentimendu bat edo zerbait... edo hori da, kastigu baten, hori da, motorra ostu duena, ba kartzela du beldur. Orduan, errudun eta bai, eta kastigu baten itzala bere gainean. Hori da.



12. BIDEO-PASARTEA: ELKARRIZKETAREN MATERIAL OSAGARRIA

■ Iraupena: 5'8"

ANTTON

Lehenengoarekin hasiko gara, orduan. Bueno, ea “zein da beldurraren kontrako antidotoa”?

B.A.

Umm! Nik uste dut aurrena beldurrak sekulako indarra daukala, ez? Seguru asko indarra baldin badago gure baitan, gure irudimenean, are eta indar gehiago dago beldurra esaten diogun horretan, ezta? Hori aspaldiko garaietatik esana dago. Nik gogoan daukat, beno, nik asko maite dut Montaigne, ez?, idazle frantziarra, eta berak esaten du nahiz eta nor izan pertsona, nahiz eta nor izan soldadua, askotan beldurrak lepotik heltzen diola eta eginarazten diola berak nahi duenaren aurkakoa, ez? Orduan, ez da samurra nik uste dut beldurraren antidotoa aurkitzea. Litekeena da zenbait kasutan beldurra oso sendoa ez baldin bada, arina bada, alegia, segurasko umorearen bitartez eta saihestu liteke, ez? Baina nik uste dut ez dugula izan behar hain baikorrak ere eta ez dugu pentsatu behar umoreak gaina hartzen diola edozer gauzari. Beldurrari, behintzat, ez dio gehienetan hartzen, batzuetan bai, batzuetan. Gogoan daukat, esate baterako, ba, ez dakit egia den ala gezurra den, baina, alegia, Estatu Batuetako, ba, ez dakit, ba, aktore batek, edo, bueno... uste dut komikoa zela eta bera jaioa omen zen Filadelfian, eta orduan hil zen Kalifornian-edo, eta esaten dute, ba, bere harlosan idaztarazi zuela epitafiotzat, ba, honako esaldi hau: “Nolanahi ere nahiago dut hemen egotea Filadelfian egotea baino”. Orduan, esan nahi dut, ba, bai, ematen du umoreak nolabait azken uneko garaipentxo bat lor dezakeela baina eguneroko bizitzan kontuz ibili behar da beldurrarekin. Hoberena da ez jartzea bere mende eta batez ere ez inguratzea bere esparrutara. Hoberena horixe da.

ANTTON

Baina, bueno, gertatuz gero, umorea antidoto ona da.

B.A.

Bai. Ona da antidotoa, bai, umorea. Baita kantua ere bai, ez? Ba, Emily Dickinson bazen baita ere poeta bat eta berak esaten zuen idazterakoan idazten zuela umeak kanposantu aurretik pasatzerakoan kantatzen zuten arrazoi berberetatik, beldurratik. Umeak kanposantu aurretik pasatzean kantatu egiten dute, beldurra uxatzeko, eta bai, beste batzuek idazten dugu baita ere beldurra uxatzeko, nolabait, eta bai, gehientsuenetan, ba, umorearen bitartez, ba, bai. Hori nolabait baretu egiten dugu, ez? Pixka bat suabetu egiten dugu beldurraren eragin zikoitz, gaizto hori, ez?

ANTTON

Bueno, beste galdera bat aterako dugu. Aber zer dioen.

B.A.

Aurrenekoa ez zen hain zaila ere.

* * *

ANTTON

Beste pare bat galdera. Aber, hurrengoak zer dioen... galdera polita. “Zein da euskarak duen hitzik beldurgarriena?”

B.A.

Euskarak? Beno, erraza da iraganari buruz begira jarriz gero, ba, erantzuna erraza da. Esan nahi dut, itzala dela hitzik beldurgarriena. Garai batean, itzala hildako norbaiten arima zela pentsatzen zen eta horregatik

beldurra ematen zuen. Eta horregatik bizkaieraz, esate baterako, gaur egun zuk itzela esaten baldin baduzu esan nahi du gauza izugarria, eta ezkutatu egin zen itzala orain guk ematen diogun zentzuarekin eta horren ordeztatu zen beste bat, eta da gerizpea, eta tabu bihurtu zen hitz hori. Nik uste dut hori dela, historikoki hori da euskarak izan duen hitzik beldurgarriena.

ANTTON

Itzala.

B.A.

Bai. Itzala.

ANTTON

Eta azkeneko galdera. “Zer idatziko zenuke zure epitafioan?”

B.A.

Ba, nik beharbada, Samuel Beckett-en pertsonaia batek bezala, jarriko nuke gutxi gorabehera: “Hemen datza beti iheska zebilena, honi ere muzin egingo liokeena”. Hori oso epitafio polita iruditzen zait eta oso benetakoa. Lehen aipatu dudan hori —Filadelfiakoa—, eta iruditzen zait polita, baina apur bat irreal, esan nahi nizuke... iruditzen zait dotoreegia. Hau, berriz, nolabait esateko, oso laua da, oso egiazkoa da eta baita ere badu umorea, ez bairik gabe. Horixe beharbada jarriko nuke.

1. DIKTAKETA (TXOTX-DIKTAKETA ETA CLOZE-TESTA)

Helburu nagusia:

- Jatorrizko testua hitzez hitz, ahalik eta zehaztasun handienarekin, berridaztea.

Helburuak:

- Testu barneko eduki gramatikalei erreparatzea.
- Nork bere ezagutza gramatikala aktibatzea, testua berridazteko.
- Norberaren zalantza gramatikalak identifikatu eta argitzea.

Zertan den:

- Diktaketa hauen helburua zera da, ikasleen arreta kode linguistikoaren ezaugarri formal eta gramatikaletara ekartzea. Lehenengoan, "Txotx-diktaketa", planteamendu zabala egiten da, pasartearen eduki gramatikala bere osotasunean hartuz. "Cloze-testean", berriz, denborazko esakuneei erreparatzen zaie, bereziki. Irakasle bakoitzak erabaki beharko du bietako zein interesatzen zaion gehiago, baten bat interesatzekotan.

PROZEDURAK:

LEHENENGO AUKERA: TXOTX-DIKTAKETA (35')

Prozedura hau, guk ezarritako aldaketa txikiak gorabehera, Paul Davis eta Mario Rinvoluciren liburuan *** dator "Cheating dictation" (7.3) izenburupean.

PROZEDURA:

- Graba ezazu audio-zinta batean diktaketarako aukeratu dugun testu-zatia (lehenengo parrafoa), abiadura normalean irakurrita eta ahalik eta soinu-kalitate onenarekin.
- Banaiezu ikasleei ikaslearen fitxa fotokopia bana. Azal iezaiezu zein den egin beharreko lana: hutsuneetan ezabatu ditugun hitzak zein diren asmatzea, ahalik eta zehaztasun handienarekin (helburua jatorrizko testua hitzez hitz berreraikitzea da). (2')
- Ipin ezazu audio-grabazioa. Esaiezu ikasleei hobe dutela pasarte osoaren esanahiari eta antolaketari erreparatzea berehala hutsuneak betetzen hastea baino. Ikasle bakoitzak erabaki behar du zein motatako oharrak jaso. (3')

! Oharra: Mota honetako ariketak egiteko ohiturarik ez badute, bigarren entzunaldi bat ere beharko dute, seguruenek.

- Behin grabazioa entzundakoan, ikasleek testua berregiteari ekin behar diote, nork bere aldetik. Laguntza gisa ikasle bakoitzak lau txox izango ditu. Txox horietako bakoitzak berak aukeratutako hitz bat jakiteko aukera emango dio. Horretarako, irakaslearengana joan beharko du galdetzera. Irakasleak txotxaren truke erantzun zuzena emango dio. (10-13')
- Testua hitzez hitz berregiteko zalantzak izanez gero, saia daitezela, ahal dela, gramatikala izan daitekeen beste modu alternatibo batean osatzen.
- Bil daitezela hirunaka eta berridatz dezatela testua elkarri lagunduz. (5')
- Amaitzeko, esaiezu erreparatzeko eurentzat zailenak izan diren atalei eta aztertzeke zailtasun horien arrazoia. Seguruenik, ezkutuko gramatika-kontuak agertuko dira, agian zure azalpena eskatuko dutenak.

*** Davies, P.; Rinvoluceri, M. 1983 Dictation, new Methods, new Possibilities. Cambridge University Press

ZUZENKETA-ORRIA

■ Joan zen urteko neguan “paloa” eman zidaten Donostian. Nire kotxea irekitzen ari nintzela, itxura txarreko bi gazte hurbildu zitzaizkidan eta nire bizitzako unerik larriena pasarazi zidaten. Soinean neramatzan diru, erloju, txamarra eta gainerakoak kendu zizkidaten labana bat aurrean eta bestea atzean jarri ondoren. Eskerrak egun hartan diru dexente nuen poltsikoan, bestela ez nintzen hau idazten arituko gaur. Bi mutil haien aurpegietan heriotza ikusi nuen marrazturik, argi eta garbi.

(1) _(2)_ urteko _(3)_ _(4)_ eman _(5)_ _(6)_. _(7)_ _(8)_
 irekitzen _(9)_ _(10)_ _(11)_ txarreko _(12)_ _(13)_ _(14)_ _(15)_ eta
 (16) _(17)_ unerik _(18)_ _(19)_ _(20)_. Soinean _(21)_ diru,
 (22), _(23)_ eta _(24)_ _(25)_ _(26)_ labana _(27)_
 (28) _(29)_ bestea _(30)_ _(31)_ ondoren. Eskerrak _(32)_ _(33)_ _(34)_
 dexente _(35)_ _(36)_, bestela _(37)_ _(38)_ _(39)_ _(40)_ arituko _(41)_.
 (42) _(43)_ _(44)_ aurpegietan _(45)_ _(46)_ _(47)_ marrazturik, _(48)_
 (49) _(50)_.

1. Joan	26. zizkidaten
2. zen	27. bat
3. neguan	28. aurrean
4. “paloa”	29. eta
5. zidaten	30. atzean
6. “Donostian	31. jarri
7. Nire	32. egun
8. kotxea	33. hartan
9. ari	34. diru
10. nintzela	35. nuen
11. itxura	36. poltsikoan
12. bi	37. ez
13. gazte	38. nintzen
14. hurbildu	39. hau
15. zitzaizkidan	40. idazten
16. nire	41. gaur
17. bizitzako	42. Bi
18. larriena	43. mutil
19. pasarazi	44. haien
20. zidaten	45. heriotza
21. neramatzan	46. ikusi
22. erloju	47. nuen
23. txamarra	48. argi
24. gainerakoak	49. eta
25. kendu	50. garbi



IKASLEAREN FITXA

(1) _(2)_ urteko _(3)_ _(4)_ eman _(5)_ _(6)_. _(7)_ _(8)_
irekitzen _(9)_ _(10)_ _(11)_ txarreko _(12)_ _(13)_ _(14)_ _(15)_ eta
(16) _(17)_ unerik _(18)_ _(19)_ _(20)_. Soinean _(21)_ diru,
(22) , _(23)_ eta _(24)_ _(25)_ _(26)_ labana _(27)_
(28) _(29)_ bestea _(30)_ _(31)_ ondoren. Eskerrak _(32)_ _(33)_ _(34)_
dexente _(35)_ _(36)_ , bestela _(37)_ _(38)_ _(39)_ _(40)_ arituko _(41)_ .
(42) _(43)_ _(44)_ aurpegietan _(45)_ _(46)_ _(47)_ marrazturik, _(48)_
(49) _(50)_ .

1.	26.
2.	27.
3.	28.
4.	29.
5.	30.
6.	31.
7.	32.
8.	33.
9.	34.
10.	35.
11.	36.
12.	37.
13.	38.
14.	39.
15.	40.
16.	41.
17.	42.
18.	43.
19.	44.
20.	45.
21.	46.
22.	47.
23.	48.
24.	49.
25.	50.

BIGARREN AUKERA: "CLOZE-TESTA" (35')

- Teknika honi buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo ezazue Zutabe aldizkariaren 7-8. eta 25. aleetara. Bi artikulua laburretan Joanba Bergarak zehatz-mehatz azaltzen ditu teknika honen gorabehera guztiak: oinarri didaktikoa, prozedurak, aldagaiak, etab.

PROZEDURA:

- Graba ezazu audio-zinta batean diktaketarako aukeratu dugun testua, abiadura normalean irakurrita eta ahalik eta soinu-kalitate onenarekin.
- Banaiezu ikasleei Ikaslearen fitxa bana. Azal iezaezu zein den egin beharreko lana: hutsuneak betetzea jatorrizko testutik ezabatu ditugun denborazko esakuneekin (esakuneok zerrenda batean bilduta aurkezten zaizkie ariketa-orrian bertan). (3')

! Oharra: Esakuneen zerrenda eman gabe ere egin liteke ikastaldearen mailak horretarako aukera ematen duela ikusiz gero.

- Ipin ezazu audio-grabazioa. Esaiezu ikasleei pasarte osoaren esanahiari eta antolaketari erreparatu behar dietela, ezin direla berehala hutsuneak betetzen hasi. (3')
- Behin grabazioa entzundakoan, ikasleek hutsuneak betetzeari ekin behar diote, nork bere aldetik. (10')
- Bukatutakoan, bil daitezela hiruak eta aldera ditzatela erantzunak. Komenta ditzatela ariketa egiterakoan izan dituzten zailtasun, zalantza eta arazoak. (5-10')
- Amaitzeko, esan dezatela talde osoaren aurrean zein zailtasun izan dituzten eta azal ditzatela zailtasun horien zergatiak. Seguruenik, ezkutuko gramatika-kontuak agertuko dira, agian zure azalpena eskatuko dutenak. (10')



IKASLEAREN FITXA

NIRE BIZITZAKO UNERIK LARRIENA

_____ (1) _____ “paloa” eman zidaten Donostian. _____ (2) _____ itxura txarreko bi gazte hurbildu zitzaizkidan eta nire bizitzako unerik larriena pasarazi zidaten. Soinean neramatzan diru, erloju, txamarra eta gainerakoak kendu zizkidaten labana bat aurrean eta bestea atzean ____ (3) _____. Eskerrak _____ (4) _____ diru dexente nuen poltsikoan, bestela ez nintzen hau idazten arituko ____ (5) _____. Bi mutil haien aurpegietan heriotza ikusi nuen marrazturik, argi eta garbi.

Hona beraiek esandakoa: “Gu heroinazaleak gara, eta ez dugu droga uzteko asmorik. Gaiso batzuk gara eta nahi dugun gauza bakarra ondo pasatzea da, eta gure nahia lortzeko hil egin behar bazaitugu inolako eskrupulorik gabe egingo dugu.”

_____ (6) _____ karneta eskatu zidaten, eta datu guztiak _____ (7) _____ argi ibiltzeko esan; norbaiti zerbait esaten banion, poliziarengana jo, edo beste arinkeriaren bat eginez gero... bazekitela ni non topatu. Eta hantxe bertan labanaz ebaki batzuk ez egin izana propinatzen hartzeko.

Neuk bakarrik dakit _____ (8) _____ nola pasatu nuen, alde guztietan fantasmak ikusten nituela.

_____ (9) _____ Martuteneko espetxean sartu zituzten, gizon bat labanaz hiltzeagatik, itxura denez. ____ (10) _____, ordea, askotan ikusten ditut kalean, nik ezagutzen baititut biak eta haiek ni ere bai; baina beldurtu eta izutu ni bakarrik egiten naiz elkarrekin _____ (11) _____.



ERANTZUN-ORRIA

ondorengo hilabeteetan	zenb.
gaur	<input type="checkbox"/>
topo egitean	<input type="checkbox"/>
idatzi zituztenean	<input type="checkbox"/>
jarri ondoren	<input type="checkbox"/>
alde egin baino lehen	<input type="checkbox"/>
joan zen urteko neguan	<input type="checkbox"/>
egun hartan	<input type="checkbox"/>
nire kotxea irekitzen ari nintzela	<input type="checkbox"/>
handik hilabete batzuetara	<input type="checkbox"/>
orain	<input type="checkbox"/>



2. DASTATU LITERATURA: DILIJENTZIA 135'

Helburu nagusia:

- Modu estentsiboan irakurritako ipuin baten beldurgarritasunaz duten iritzia azalduko dute ikasleek.

Helburuak:

- Berbaldi bat entzutea interesatzen diren datuak jasotzeko (entzute xehea).
- Ipuina modu estentsiboan irakurtzea.
- Ipuinaren beldurgarritasuna aztertzea eta eztabaidatzea.
- Estilo zuzenean aurkeztutako elkarrizketetan narratzailearen iruzkinak nola tartekatzen diren ikastea.

Zertan den:

- Bernardo Atxagaren Antonio de Murgiak esan zuena* izeneko ipuina aukeratu dugu ikastunitatearen atal honetarako, beldur-kontuetan maisu eta gidari izan dugun idazlearen beste testu bat, beraz. Hasteko, Atxagak berak, **11. bideo-pasartean**, literatur pasarte beldurgarri baten ezinbesteko osagaiak zein diren azalduko digu, maisuki azaldu ere, ohi duen bezala. Osagaiok gogoan hartuta, ikasleak ipuina irakurri eta haren beldurgarritasuna neurtzen eta baloratzen saiatuko dira. Amaitzeko, ipuinaren pasarte batez baliaturik, estilo zuzenean aurkeztutako elkarrizketetan narratzailearen iruzkinak nola tartekatzen diren aztertuko dugu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: ikasleen aurrezagutza elizitatu

- Atazaren sarrerako testuaren haritik, galdeiezu ikasleei ea zein film, ipuin edo kontakizun gogoratzen dituzten bere garaian inoiz ez ahazteko moduko beldurra pasarazi zietenak. (10')
- ! **Oharra:** Ez ahaztu elizitate-aldi horren helburua gaia aurkeztea eta gutxieneko giro bat sortzea dela. Beraz, ez gehiegi luzatu.
- Sarrerako testuaren amaieran hiru galdera aurkituko dituzte ikasleek, Bernardo Atxagak **11. bideo-pasartean** erantzun beharko dizkienak, hain zuzen ere. Anima itzazu galderok hausnartzera, ea erantzunen bat aurkitzen duten. Baten bati zerbait bururatsen bazaio, azal dezala taldekideen aurrean. (5')

Ataza: Atxagaren erantzuna entzun eta osagaiak zerrenda batean jaso

- Ikasleek Atxagari egindako elkarrizketaren hurrengo atala ikus-entzungo dute **11. bideo-pasartean**. Idazle asteasuarrak aipatzen dituen bospasei osagaiak zerrenda batean biltzen saiatu behar dute. (3')
- Binaka bilduta, aldera ditzatela egindako zerrendak eta saia daitezela ulerkuntzaren aldetik izandako arazoak eta zalantzak euren artean argitzen. (3')

Feedbacka

- Guztion artean, birpasa itzazue arin-arin zerrendako puntu guztiak. Gogora itzazue Atxagak emandako azalpenak, adibideak eta abarrak eta argitu itzazue ondo ulertu gabe geratu diren gauza guztiak. (5')

Atazaostea

- Emaiezu ikasleei literatur pasarte beldurgarriaren osagaien zerrenda osatzeko aukera. Esaiezu birpasatzeko osagaien zerrenda eta pentsatzeko zein beste osagai izan litekeen zerrendako horiei eransteko modukoa. Ea ezer bururatsen zaien. (2')
- Azal ditzatela bururatu zaizkien osagaiak talde osoaren aurrean. Ikasleen ekarpen horiekin osagaien zerrenda osatu eta aberastuko da. (5')

* Atxaga, B. 1996 Antonio de Murgiak esan zuena. In Diligentzia-Bidea abentura zenean. Zumalakarregi Museoa. 14-21. orr.



2

Ataza: ipuina irakurri

- Ikasleek Bernardo Atxagaren Dilijentzia izeneko ipuina irakurriko dute (ikus ikaslearen liburuan 4.1.material osagarrian). Esaiezu irakurtzen bukatutakoan ipuin horren beldurgarritasuna aztertu beharko dutela. (25')

Oharra: Ondo legoke irakurketa nor bere etxean egitea ere, ipuina lasai, presiorik gabe, nor bere erritmoan irakurtzea komeni baita.

Atazaostea: ipuinaren beldurgarritasuna aztertu

- Hirunaka bilduta, irakurri berria duten ipuinaren beldurgarritasuna aztertu behar dute ikasleek. Komenta eta eztabaida ditzatela euren liburuko lau puntuak. (10')

Feedbacka

- Eztabaida itzazue denon artean ipuinaren beldurgarritasunaren inguruan sortu diren iritzi eta arrazoiak. Birpasa itzazue aurreko puntuko lau galderak eta aldera itzazue talde ezberdinetan emandako erantzunak. (15')

3

Gramatika eta diskurtsoa: estilo zuzena eta narratzailearen iruzkinak

- Esaiezu ikasleei irakurtzeko ipuinaren zati labur hori. Letra arruntean pasarteko protagonisten esanak aurkituko dituzte, estilo zuzenean, eta horien ondoan, tartekaturik, narratzailearen iruzkinak (hauek letra lodiz). Saia daitezela narratzailearen iruzkin diren zati horiek sailkatzen, txanda-aldaketa adierazteko direnak alde batera, eta, egoerari buruzko oharrak, beste aldera. (5')
- Binaka bilduta, "narratzailearen ekarpenak" sailkapen-taula aurrean dutela, mota bateko zein besteko iruzkinak aztertuko dituzte. Horretarako, aski dute euren liburuko bi galdera-sorta labur horiei erantzutearekin. (5')
- Denon artean, irakaslearen gidaritzapean, zuzendu itzazue aurreko puntuan egindako sailkapenak eta galderei emandako erantzunak. (5')

ZUZENKETA-ORRIA

NARRATZAILEAREN EKARPENAK

Txanda-aldaketa adierazten dutenak

- "galdetu zuen maioralak"
- "erantzun nion"
- "hark osterā"
- "Eta nik"
- "Berak orduan"
- "Eta jarraian"
- "esan zuen orduan bentako nagusiak"
- "esan zidan (maioralak)"

Egoerari buruzko oharrak

- "hitz egiteko modua aldatuz"
- "Hura entzun orduko sentitutako zirrarak mutu utzi ninduen"
- "Nola edo hala, eztarria larrituz, erantzuna ematea lortu nuen"
- "Maioralak bizkarreko bat eman, eta..."
- "...barrez"
-

- A.
1. Ez, beti ez. Batzuetan aditza ezkutuan geratzen da. Halere, edozein irakurlek antzeman dezake zein den ezkutuko aditz hori.
 2. Hiru kokalekuetan ageri dira horrelako testu-zatiak.
- B.
1. Narratzaile-protagonistaren (mutikoaren) ikuspegitik eginda daude, eta kutsu subjektibo nabarmena dute.
 2. Batez ere, "nola" galderari erantzuten diote.



Ataza: pasarte berridatzi maioralaren ikuspegitik

- Ikasleek ipuinaren pasarte labur hori berridatziko dute. Atxagaren ereduari jarraiki, protagonisten esanak estilo zuzenean aurkeztuko dituzte, aldiro protagonista-narratzailearen iruzkinak tartekatuz. Atxagarenean ez bezala, ordea, maioralak izango da narratzaile iruzkingilea. Beraz, haren ikuspegia barneratu eta adierazi beharko dute iruzkinotan. (15-20')

! **Oharra:** Oharkabean bada ere, maioralaren begiekin ikusi behar horrek ipuinaren ulerkuntzan izan diren zenbait gorabehera eta ñabardura utziko ditu agerian.

Feedbacka

- Ikasleak binaka elkartuko dira eta sortutako testuak trukatu dituzte euren artean. Azter dezatela ikaskideak tartekatutako iruzkinen egokitasuna, bai formaren aldetik (narratzailearen ekarpenak izeneko taularen gaienean egindako hausnarketak lagunduko die zeregin horretan), eta bai esanahiaren aldetik (maioralaren ikuspegitik sinesgarri eta egoki ote dira iruzkinok?) (5-10')
- Egindako azterketa horretan ikusi dituzten gauza aipagarriak komentatuko dituzte elkarrekin. (5')
- Feedbacka biribiltzeko, ikasle baten testua zuzendu eta azter dezakezue denon artean. (10-15')

Aukeran: Ikastunitateari bukaera emateko, nahi izanez gero **12. bideo-pasartean B**. Atxagari eginiko elkarrizketaren azken zatia aurkituko duzu, ikasleek besterik gabe ikus dezaten.

Eskuetan daukazu liburuskak HABEek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikasmaterialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko prozesua lau mailatan banatzen da:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera, eta bi zatitan banatua: 1 A eta 1 B (4., 5. eta 6. urratsak); 2. Maila (7., 8. eta 9. urratsak); 3. maila (10., 11. eta 12. urratsak) eta 4. maila (EGAtik gorakoa).

HABEek materialgintza proiektuaren bidez kurrikuluaren garapenean lagun dezaketen ikastunitate-eredu batzuk aurkeztu nahi ditu.

BARRENE (1B mailarako materiala)

- Zu Tarzan... ni Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)

BARRENET (2. mailarako materiala)


- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitza (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)

BARRENKALE (3. mailarako materiala)

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)

Denek dute irakaslearentzako zein ikaslearentzako liburuskak (irakaslearena eta ikaslearena). Horrez gain bideo- eta audio-zintak ere argitaratu dira.

HABE
Herriaren Abuztuak eta Demokraziaren Gaiak
Ereunde Autonomoak



ISBN 84-86968-83-6



9 783436 963330